

zeruko ARGIA



DAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426866 - PREZIOA 7 PEZETA

TOLOSAN 1973ko HAMABOSTALDIA

TOLOSA ETA BERE BAILARA HERRI BERRITZEN

Iaz bezalatsu, aurten ere Tolosako euskaltzaleek eratu dute beren Euskal Kultur Hamabostaldia. Maiatzaren 5etik 20ra izango da Hamabostaldi hau. Iazkoak benetako oihartzun bizia izan zuen Euskal Herri osoan, eta aurtengoaz ez da seguru aski atzetik geratuko.

Gure irakurleei Hamabostaldi honen berri emateko, zuzendari arengana Axentxio Hondarribal jo dugu. Lizardi Kultur Elkartearen zuzendari honek bait darama Hamabostaldi honen erakunde lana.

—Nork eratzen du Hamabostaldi hau?

—Eratze lana Lizardi Kultur Elkartek hartu du bere gain; baina, esan beharra dago, beste zenbait elkartetatik ere jaso dugula laguntzarik (Gure Txokoa, Urdiña Txiki, Veleta eta abar). Hauetaz gain jende asko da parte hartzen duena han eta hemen.

—Eta jakin ahal liteke noiz erantzuten den Hamabostaldi hau?

—Uste dugunez, Hamabostaldiaren barnean bada gauzarik aski, kultur jardunaldi hauek denentzat zerbait interesgarriak izan dezaten. Hori uste dut dela Hamabostaldiaren alderik onenetako bat: programa nahiko zabala dela, alegia. Askorentzat egoki gerta litezke, esate baterako, abesti jaialdiak; goraxeagotik baditugu hitzaldiak, eta bion tartean beste zenbait gertaera.

—Baina hau dena Tolosako herriarentzat bakarrik pentsatua da, ala bailara osoarekin kontatuaz ari zarete?

—Bai, inguruko herriarentzat ere egiten da Hamabostaldi hau. Eta badakigu, gainera, gauza asko eta asko batez ere bailarako jendearentzat izango dela, Liburu Azoka adibidez, gehiago bait dira kanpoko erosleak hemen bertakoak baino. Herrietako euskaltzaleei elkar-bide bat eskaini nahi genieke Hamabostaldi honekin.

—Zure ustez, zenbaterainokoa da tolosarren erantzuna, iazko zuen Hamabostalditik ikusi zenutenez?

—Esan dezagun lehenik, Tolosa, gainerako Euskal Herriko paretsuko herriak bezala, neurri handi batean erdalduna dela, euskalduna izan nahirik ere. Aje horrek da-

kazkien ondoezak ditu Tolosak ere. Hala ere Tolosa ez da erabat erdaldundu inguru euskaldun bat duelako. Tolosak bere inguruarekin bizi-batasun bat egiten du eta honela, bere osoan hartuta, Tolosak poliki erantzun zuen. Aurten ere, horregatik, itxaropen ona dugu.

—Goazen, ba, aurtengoarekin. Badituzue hamabost-hamasei egun zuen egitarauaren barnean. Nola laburtuko zenuke lan hori dena?

—Esan dezagun labur-labur hiru eginkizun motetan sailkatu dezakegula Hamabostaldi osoa: hitzaldiak, erakusketak eta jaialdiak. Horietaz aparte, herri-bazkari bat, herri-Meza, etab.

—Ikusten dudanez, baduzu hor zer kontu. Goazen hitzaldiekin. Nola eratu dituzue hitzaldi horiek?

—Aurtengo gaiak batez ere ekonomiari lotuak datoz, ekonomiari eta gizarte-historiari. Honela, bi ekonomista izango ditugu lehenengo astean, Ramuntxo Kanblong eta Jenaro Garate. Hirugarren egun batean mahaininguruko bat izango da jendaurrean, erabilitako gaiak elkarriketa batean aztertuz. "Euskal ekonomiaren etorkizuna, euskal iparraldetik begiratuta" izango da lehen gaia; "Euskal Herriko Ekonomia, Merkatu Batura begira", bigarrena. Eta mahainingurukoan hori dena birikusiko da. Bigarren astean Mikel Ugaldek langileriaren historia aztertuko digu, batez ere Euskal Herria gogoan duela. Xabier Unzuñunzagak Gipuzkoako Hirigintzaren arazoa aurkeztuko digu eta Xabier Kintanak euskeraren batasunarena.

—Eta jaialdietatik, zer-nolakoak eratu dituzue?

—Maiatzaren 5ean dugu lehenbiziko jaialdia. Egun hontakoan

zarauztarrak izango ditugu animatzaile. "Oleskariak" taldea izango da kantari eta horrekin batean Zarauzko Ikastolako haur talde batek parte hartuko du. Hurrengo

NON ZER	
● AIERBETIK BIARNORA Larresoro	3 garrenean
● EGUN EGUNEKOA Ibargoiti	3 garrenean
● IPAR AMERIKAREN ERASOA Elustondo	5 garrenean
● TREBIÑO	6 garrenean
● ON KOSME, ZERRI-SALBATZAILLE Arostegi	10 garrenean
● ELIZA INSTITUZIO (1) Arregi	11 garrenean

ra: Pantxo, Pello, G. Knörr, Laboa, Zabala, Harze anaiak, etab. Dantzari jaialdia izango da beste jaialdi nagusia; zazpi talde izango dira: Oinaz (Oinazi), Bitxintxoak (Ziburu), Atarratzetik Etxahunen taldea, San Migel Arretxinaga (Markina), Mutil Dantzariak (Arizkun), Udaberri (Tolosa) eta Gasteiz Taldea (Gasteiz).

—Iazko Erakusketak leku oso apartekoa izan zuten. Zer esan zenezake aurtengoaz?

—Pintura Erakusketa bat izango da aurten ere. Berrogeita hamar bat artistak parte hartuko du Erakusketa hortan. Uste dugunez, iazkoaren paretsukoa izango da. Benetan bizkortu nahi genukeen beste Erakusketa, Euskal Liburu eta Diskaren Azoka da. Dakigunez, iazkoan argitaldaria nahiko pozik joan ziren eta horri entsi eta gora bultzatu nahi genioke.

—Ikusten dut luzetxoa dela hemen orain emateko, baina aipatu nahi ahal duzu Hamabostaldiko programa hortatik besterik?

—Bai, noski. Hilaren 6an estropadak izango ditugu. Navarra, sus cuatro estaciones filma. "Tolosa Saria" emango da. Txistularien kalejirak. Nestor Basterretxeak diapositiba bidez euskal artista sail baten obrak aurkeztu eta esplikatu ditu saioaldi batean...


Holako lana daramazuenok irabazia duzue noski erantzun on bat. Eta, hori gora-behera, ematen edo eskaintzen dituzuenekin baduzue jendea nola erakarri. Bihoaz tolosar hauentzat gure txaloak. Tolosara arte, ba.

ERRIALDE

TOLOSAN 1973 MAIATZA: 5 - 20

EUSKAL KULTUR
HAMABOSTALDIA

ARTE ERAKUSKETA - EUSKAL FILMAK -
ANTZERKIAK - ABESTIAK - LIBURU AZOKA -
DANTZARIAK - HITZALDIAK - BERTSOLARIAK



NERE BORDATXOTIK

Aurrez aginduta gendukan bezela, an izan gñan Azpeiti'n, "Agite" ta Latasa'ren arteko neurketa ikusten.

Gauzak diran bezela agertzea gustatzen zaigu, ta egia esan, ango norgeiagoka ezna gure gozkoa izan.

Egiten danean egiten dala esan bear da, ta egiten ezta-nean, ezjala egiten. "Agite'k" Latasa'k etzuten lanik azaldu.

ear baiño geiago korritu zuen erlojuak.

—o0o—

Ueurketa cstua izan zan, baiña grazi gabeko neurketa.

Egur gogorak ziran "Agite'renak". Konporme ontan.

Latasa'k plazaratu zituenak, ordea, etziran artarainokoak. Legzko ta galgako enborrak ziraia aitortu bearra dago.

Au onela izanik, nolatan pasa zuten ainbat denbora?

Azpeiti'ko marka, oso marka onak eta aula da. Aitatzetik merezi eztena.

Erelojua da inor onganatzen eztena.

Ta, igandean, azkarregi ibili zan erlojua; edo mantsoegi ibili ziran aizkolariak. Azkeneko au egia.

—o0o—

"Agite" azpeitiar gaztea ondotoxo geiago zala uste genduen.

Zerbait gertatu zitzaion, bear bada, gorputzak gorabera aundiak ditu-ta. Baiña lanik etzuen azaldu; aizkolari maillarik etzuen erakutsi.

Asko gustatu zitzaigun bere erritar "Urretaren" kontra jokatu zanean. Igandean, oso gutxi.

Jo ta jo, errukirik gabe aritu zan, baiña aren aizkora bide gutxian joaten zan egurraren bitzean. Indar gutxi agertu zuten; kolpe arifak, kolpe axalak. Egurrei ezin erasan.

Zulorik ezin egin; gaitzik eta pikardirik gabeko kolpeak.

Ariñegia da "Agite", izan ere, aizkolari onenen taldean jartzeko.

78 kilo bere pixua.

Pixu polita beste zenbait deportetarako.

Aizkorarako txikiegia. Onenen maillan ibiltzeko, batez ere.

—o0o—

Jende asko zan Azpeiti'n; oso sarrera bikaina.

Dirua parregarri egon zan "Agite" irabaztunaren alde.

"Eun berrogeiri", jokoa asi baiño minutu batzuk lenago. Izan zan bolara bat "eun amabosti" jarri zana ere.

Latasa joan zan aurretik bide askoan. Latasa egurrik gozonenetan, berak eramandakoetan asi zan lanean, eta "Agite" egur gogorretan.

Latasa'k zortzi kana-erdiko ebaki zituen "Agite'k" zazpi ordurako.

Enbor baten bentaja kendua zeukan. Korredoreak, alare, "eun berrogeiri", otsegiten zuten "Agite'ren" alde.

Jokalariak ikusten baizuten Latasa egur ondradutan ari zala, ta traketsetan, "Agite".

Gero, tokiz aldatu ziranean, "Agite" egur ondratuetara pasa zanean, egin zuen baiño askoz geiago egingo zuela uste zuen jendeak.

Ortan izan zan okerra.

—o0o—

"Agite'ren" erakuslea: Saralegi, leitzarra.

Botilleroa: Ituarte, leitzarra, baitere.

Latasa'ren erakuslea: Mindegia lenengoa.

Botilleroa: Mindegia bigarre-na.

Igandeko lana, puntako aizkolarientzat, aizkolari onenentzat, ordubeteko lana zan, oker

aundi gabe. "Arria" bigarrenak (berak aitortu zigunez), ordubetean ebakiko zitukean.

"Agite" irabazleak 80 minutu ta 36 segundo bear izan zituen.

Latasa galtzailleak, 81 minutu ta 24 segundo.

Onekin adierazia dago dana. Etzuten lanik egin, eta itxasoa mendia dala esaten ez gera ariko.

Uste baiño askoz joko estua goa izan zan, baiña joko txarra; kalidade gutxiak. Aspergarria gainera, ikuskizun luzeak izaten diran bezela.

—o0o—

Bostetik bostera dijoaz denborak.

"Agite" irabazleak: Bost kana-erdiko, 18 minutu ta 23 segundoan.

Amar kana-erdiko, 37 minutu ta 10 segundoan.

Amabost kana-erdiko, 59 minutu ta 59 segundoan.

Ogei kana-erdiko, 80 minutu ta 36 segundoan.

Latasa galtzailleak: Bost kana-erdiko, 14 minutu ta 25 segundoan.

Amar kana-erdiko, 33 minutu ta 40 segundoan.

Amabost kana-erdiko, 56 minutu ta 7 segundoan.

gei kana-erdiko, 81 minutu ta 24 segundoan.

Denborak ondo lagundu zuen. Laiño zakarrak zerauldean, baiña eguzkia lanerako gogotsu, trabarik etzuen tokian.

Latasa'ren pesta bukatu da. Aparteko aizkolaria izan da, baiña gaur, garai bateko Latasa'ren itzala besterik ezta. Lagun txarrak dira urteak. "Agite'k" berriz, derrigor izan bear zuen zerbait ondoez edo oker. Bestela ezin pasa ainbat denbora egurren gainean.

BASARRI

(11 gn orrialdean asiera)

ELIZAREN.....

—Asko ahal zineten Añamendi honuntzko jendea?

—Donostiatik bahuen autobus bat; beste bat, bazekiat, Irundik joan zela; Bilbaotik ere ba omen huen beste bat.

Madridetik, Andaluziatik, Burgostik. —Eta elkarrekin, ezer gauza berezirik egin ahal duzue? Nola? Eukaristia, hitzaldiak...?

—Bai, izan genituan geure batzar txikiak; baina, ez zegoan guretzat giro egokirik memento horretan. Eukaristia ospatu nahi izan genian aparte; ordua ere jarrita genian; baina kriptara joan ginelarik, italiarrak ari ituen beren ototzean.

—Ez ahal zaik iruditzen, iluminismo edo lilurakeria askorako arriskua dagoela elkarrizketa honetan zehar aipatu duan giro horretan?

—Han ikusi nuena barruan ongi sartua gelditu zaidak; nahiz bere akatsak izan. Batetik, han dinamismoa jatorra nabari duk, mundu zapalduaren aldeko dinamismoa, eta elizkizunetan debozio handia agerihu en. Esaterako, Bazko egunez, eliz-jaiak ez huen elizako abesti-saio hutsean geratu; kanpoan abesten jarraitu ziaten; ez zegoan lotsarik, ez itxurakeriarik; jendeak naturalki adierazten zian bere barneko poza. Gaua sartuaz gero, hantxe jarraitu hituen eliza inguruan abesten, ingurua alaituz. Lilurakeria? Zerbait balitekek. Baina, zer duk sinesmena? Ez ahal zekarrek bere ondorio bezala barne poza?

—Konpromiso bizirik ba ahal dik jende horrek? "Nebulosa" antzeko zerbaitetan ez ahal duk gelditzen guztia? Alegia, ez ahal zaik iruditzen guztia honetara mugatua gelditzeko arriskua badela: edota munduaren etorkizuna ez dago gure eskuetan eta "kontestazio" maila hutsean gelditu, edota hau eta hori egin behar litzake eta ezer ez egin?

—Batzuk konpromiso bila joan dituk noski. Ez denak. Zaila duk, hainbeste jende biltzen denean, denak konpromisorako biltzea. Ezinezkoa. Baina, Taizeko mugimendua giro bat sortu dik; giro horretan bizi duk haruntz doan gazte jendea. Eta bertatik aterako dituk gero konpromiso zehatzago batetan sartu nahi izango dutenak. Eta esan behar diagu, Taizé-ko mugimendua mundu osora zabaldua dela, eta inolaz ere, gazte taldeak samaldaka datozela bertara nonahitik. Zertara? Zergatik?

—Zer derizkiok Boquen eta Taizé arteko arazoaz, orain dela zenbait hilabete harrotu zen arazoaz alegia. Ez zaik iruditzen egiazkoago bidea Boquen-goa: alegia, gai bat hartu, eta hari buruz erabaki konkretu bat hartu?

—Bai. Entzun diat zerbait arazo horretaz. Ezin diat garbi esan; ez bait zekiat gauza handirik horretaz. Egia duk; Taizé-n ikusi nian ikasle jende hura «kontestazio» maila hutsean gelditzeko emanago zegoela agian, konpromiso serio bat hartzeko baino. Baina, esango nitek, Taizé-n giro bat sortu dela, dinamismo bat ikusten dela. Agian, Boquen-en konpromiso bizigokoan dituk. Halere, uste diat, bi mugimendua, errealitate bakar baten bi alderdi direla.

—Eta, azkenik, zein burutapen sor erazi dik Taizé-ko esperientzia horrek? Gazteriak Eliza sinesten ahal dik?

—Han jasoriko esperientzia lehen aipaturikoa duk. Gazteria zerbaiten bila zebilek. Materialismo handiaren bizi diren nazioetatik biltzen duk jendea. Eta ikusi dudanez, Jainkoaren egardia oraino bizi-bizi zegoen. Baina, gazteriarri Jainkoa adieraztea hutsa huke, hemen gure arteko prolemetatik ebakita aurkezten balitzaio. Gazteriak, bi alderdi horiek aurkitu dizkik mendi gain hartan, elkarrekin uzarturik.

Ez nitek ausarta izan nahi; baina, negok, Taizé-ko giroak edo antzekoak bakarrik irabaz lezakeela gazteria. Eta hemen, Euskal Herrian, gure artean, bagenikek monastegi edo antzeko zerbaiten beharra, hala-ko giro bat sortzeko.

—o0o—

Horrela eta maliziazko begi-keinu batez bukatu nahi izan du nere elkarrizketariak bere saioa. Esan nahiez bezala, dena ez dela paperean ezartzekoa. Esan nahiez bezala, gure artean ditugun monastegi eta bestelakoek badutela zer ikasia eta egina.

Eta beraren begi-keinuak hauxe gogarazi dit; Congar aitak nonbait dioena: monastegietan, askotan, atek zabal-zabalik dituzu, baina haruntz doanak, nahi lukeena ez du aurkitzen, hots, pertsona irekia izatea.

Izan ere, gertatzen bait da, zabaltasun handia izan kanpotik, eta barnetik triku baina itxiagoa izan.

Gaurko txosten hau luze samar joan zaidalarik, horretan utziko dut. Azter bitza irakurleak berak elkarrizketa natera diren puntuak; asko hondo samarretik begiratu beharrekoak.


AMUNSA

zure etxea USURBILEN

sarrera **50.000** pezetan

ordainketarako erreztasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokiarena aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiralétan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aureski kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.




CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIAN

C. A. P. n.º 106.527/3



Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK



Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserrri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan etorriak

Baserriaren alde

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkiñak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumelakarregi, 7ºgn



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

Unibertsidatea eta erria

Ostera, Gipuzkoako Unibertsidadearen jirabiran gabiltza. Zerbait jende eta zenbait elkarte hontaz arduraturik eta lanean dabilgaitza. Denon jaki bihurtu da.

Gipuzkoak Unibertsidatea behar du, noski baino noskiago, ezparririk gabe.

Euskalduna jende kementsua, trebea eta industri sortzailea da. Jende eskolatua eta bai profesio-mailan eta bai unibertsidade-mailan aurreratua gainera.

Hau guztia Unibertsidatea sortzeko aukera-maukerako giroa noski. Bai jakintza aldetik eta bai teknika aldetik hemengo gizona jasotzeko Gipuzkoari eta Euskal Erri osoari eta inguruko beste Erriei etorkizuna asko itxuratuko lieke.

Eguzkia bezain argia iruditzen zaigu hau guztia, zalantzarik gabekoa. Baina itzek askotan lausotu egiten gaituzte. Gertatzen dena izkutarazten digute.

Zerbait arrigarria gertatzen da Gipuzkoarako Unibertsidatea eskatzen den bakoitzean. Arrazoi berdinak ipintzen dituzte bi ertzetan dauden gizonak. Hauxe aipatzen dute batipat batzuek eta besteak: "Ikasle asko dago Gipuzkoatik Unibertsidadeetan. Gastu handia du etxetik kanpora ikastera joan behar honek. Diruz urri dauden etxeetako gazteak nahiz eta buruz azkarrak izan ez dituzke Unibertsidatera el". Arrazoi handiko egia. Baina egiazko arazoa alboan uzten dugu.

Zer Unibertsidate eskatzen da? Profesio batean, dirua emango duen langintza batean, lan egiteko baimena emango duen titulu-agiria eskuratzeko Unibertsidatea, noski. Honela, dezaketenek, gehiago izan dezaten erabiliko dute Unibertsidatea eta ez dutenak, gero eduki dezaten elduko dira bertara.

Baina bide hontatik Erria lehenean geratzen da, Unibertsidaderik gabe. Honela, ustel gertatzen erriaren usterik biziena, ase gabe Erriaren egarrik nabarmena gai hontan.

Gero eta garbiago ikusten da Unibertsidadeak Erriari lotua egon behar duela. Dagoen gizartearen txertatua eta itsatsia. Baina "edukitze" aldetik artzen badugu, dutenek eta eduki nahi dutenek, Unibertsidatearen garrantziak aterako dute. Bide hontatik, gizartearen bizkarretik edukiko du duena, Unibertsidateko jendeak.

Bere arazoak konpontzeko gizarteak sortzen duen lekua da Unibertsidatea. Dazkanele erantzuteko ez ezik gertatuko zaizkion aurrea artzeko ere bai esparririk gabe. Unibertsidateak ez da ikastetxe bat, ez da gero langintza batean lan egin dezan ikasketak egiteko etxe bat. Unibertsidateak, kokatua dagoen lekuko gizartearen arazoak aztertzeke ikastetxea da, aurkitzen dituen korapiloak askatzeko gaitzen duen lekua.

Itzen esanahia, itzen balioa jakin behar da, baina ez ditek "anglosajoi" moldeaz baliaturik Unibertsidate eskatu. Ez da behin ere Unibertsidate izatera elduko ikastetxe Nagusien andana bat.

Unibertsidaderik ez duen gizarteak beti auzora eskean ibili beharko du, arazoan erantzunaren eskean. Hauxe da oharkabean morroi izateko biderik onena, maiatzargoan bizitzeko erarik aukerakoena. Hau bera gertatzen da Unibertsidate izeneko ikastetxe eta Fakultadeak edukiarren.

Ez dute ezertxo ere balio zenbait jenderen aukera egin behar denean halako eta holako Unibertsidatean ateratako tituluek. Ez dira aintzakotzat artzen. Beste horrenbeste gertatzen da espezialitate bat tajuz egin nahi denean: Unibertsidatez aldatzen dira ordurartekoan ateratakoak ezereen izenik ez duelako. Zerbait izan nahi duen guztiak Unibertsidate ohegora aldatu nahi izaten du. Nola-halako Unibertsidateak dankanak profesio jakin batean lan egiteko tituludun jendea izango du eta bestela irabaziko ez zuen dirua, titulu hoi bidez irabazteko bidea. Baina Erri horrek, gizarte horrek, ez du Unibertsidaderik.

Horregatik Gipuzkoarako Unibertsidate eskatzen dugunean ez dugu gizarte talde batek dirua aurreratzeko leku bat eskatzen, Gipuzkoako arazoak zuzentzen lagunduko duen Unibertsidate bat baizik.

Baina Gipuzkoak ez ditzake, bere arazoak, inguratzen duten Probintzietatik aparte konpondu, beste Probintzietako arazoekin katramilaturik bait dauka.

Unibertsidateak, perritxikuak bezala, zuhaitz bakoitzaren azpian edukitzea, titulu fabrika edukitzea da. Eskualde bakoitzeko Egiazko Unibertsidateari erantsitako Fakultadeak, han eta hemen, daukan Unibertsidateak bakarrik erantzun dizaielako kokaturik dagoen Erriko arazoei.

AIERBETIK BIARNORA BI IPARTARREN IKERKETAREN ARGITAN

Baionako bere etxean ikusi berria dut Jacques Romatet kondairgile gaztea. Mahainaren atzeko pareta ia osoa bi liburu-alasek estalirik, bion arteko hutsunean mapa bakar bat ageri: Euskal Herrikoa. Romatet baionarrak, 28 urte, ez daki euskaraz, eta argi-eta-garbi aitortu dit zinez senditzen duela: «laguntza baliogaz izango nuke, besterik ez balitz ere, neure kondaira-ikerketan».

Etorkiz baionarra osoki, Baiona kaskoinaren seme dugu Romatet: ez bi gurasoek, ez lau aitona-monek, zekiten euskararen arrastorik. Baionan, kaleko hizketari dagokionez aspaldidanik erdaldun, bi etorki baitagoz: euskalduna bata, kaskoina bestea.

Gasconge-ko kondairak kilikatzen du Romatet; honen barruan Ipar Euskal Herrikoak kilikatzen du bereziki; eta euskal sail honen beraren barruan ere, euskaldun kondairagile ospatsu batek erakartzen du: Arnaut Oihenartek. «Iparaldeko Euskal Herriak inoiz eman duen intelektualik handiena», Romateten ustez.

Kondaira Maisutza izanagatik ere, ordea, «marjinalismoan» ari zaigu Romatet; ez baita euskal jakintza-aren baranoan bakarra! Oihenarteren paper GUZTIEN ikerketa OSOA egin nahi lukeela esan dit hastapenetik beretik. Nola? 20.000 folioz osatutako 23 liburu gaitz aztertu behar litzuzke horretarako, «erdiak guztiz ezezagunak». Paris-ko liburutegiak gain, Auch-ekoak, Pau-ekoak, eta abar, miatu beharko lirake. Oihenarteren irakurpena, artikulu honekin batera datorren fotoan ageri den bezala, ez da bategere erraza. «Aski ohitua dela» dio Romatetek; baina folio guztien azterketa-lana burutzeko, noski, denbora guztia behar lukeela urte batzutan barrena. Nork ordainduko? Paris-ko C.N.R.S. delakoari, E. Goiheñetxeren laguntzaz, eskabide bat egin dio; baina gaurko erantzunik ez: badute beste helbururik Parisen. Eta gure Oihenarte gaitzaren azterketa gelditu. Hots, Goiheñetxe irakaslearen ustez, dudarik ez dago paper multzo eskerga horren ikertzearen sakonki aldatuko lukeela euskal kondairaren ardatza. Zuberoko Sindikoak, olerkariak, atsotitzen biltzaileak, euskal teori-gizonak, kondairagileak eta Fernando V.aren salatzaile aurtak hori eta gehiago merezi luke. Denaz gain Dihenarte ez baitzen eliz-gizona, ez etorkizko aitona-seme, baina herri xehetiko sortutako euskal intelektuala.


Ulertuak dituen dokumentu batzua irakurri dizkit. Sancho izena, «Sanz» edo «Santz» irakurtzen da askotan; Nafarroako hiriburua «Irunia» agertzen da; eta Zuberu-ko buruzko paperetan «Jauna» hitza irakurtzen da, bere horretan, Larrañeko Garzea de Lassaga de Xauer aipatzen (Exaberriko Latsaga?); baita «Andregia» hitza (1178an). Goiheñetxek dionez, bestalde, Garzea eta Gaztea gauza bera da antzinako dokumentu zahar batzutan.

Baina Aragoa Garaia irakurri buruzko paperekin txunditu naute gehienik. Sauvelade-ko beneditarrek, gonbarazio batera (Sauvelade hori Biarnon dago, Lacq-en ondoan), herreman handiak zituzten Erdi-Harona Zuberu-arekin eta Aragoa Garaia-ekin (Jaka eta Aierbe eskualdeekin, alegia). Hots, Romatetek irakurri dituen dokumentuetan, orain dela hirurehun urte Oihenartek berak bere eskuaz kopiaturik, eskualde hori OSOKI EUSKALDUN agertzen da.

Hona hemen Aierbek Sauvelade-ri egindako emaitza batetan 1136an agertzen diren emale izenak:

- Eximino Garzes de Astaun
- Eneko Lopez Maiordomus
- Santxo Fortunionis de Exabirra
- Eneko Azenariz
- Santxo Blask
- Santxo Xemeon de Auras
- Eximino Fortunionis Alferriz.

Emaitza hau «Osca»-n sinatua da (Hueskan); eta horietatik dira, Aierberen izenaren, sinatu zuten BERTAKO HANDIKIAK. Handiki izanagatik ere, eta idazkera hori oso txarra eta desegokia izanagatik ere, nabarmen nabari da izenen euskaltasuna, ilaran, eta zalantza-izpirik ez uzteko eran: Astaun, Garzes,



Oihenarteren esku-izkribu bat

Eneko, Exaberrri, Azenariz, Belasko, Semeon, Araoz, Alferriz.

Hots, Aierbe hori iruinetik Ekalderruntz 150 km. tara dago, eta Oskatik Mendebalderuntz 28 km. tara bakarrik. Oihenarteren agiri honen alde mintzo dira, bestalde, inguru haietako leku-izenak: Aierbe brea (Aiherra hor dugu, Baxenabarreko mugan); Biscarrues (eusk. Bizkarroz, Bizkargi bezala); Aragües (eusk. Araoz, Oinatari ondoan bezalaxe); Ardisa, Eskoain, Arascues (eusk. Araskoz), Loarre, Osia, eta beste mila.

Irakurleak dakikeenez, orain dela hamar urte dokumentu argitsu bat aurkitu zuen Irigaraiak: XV. mendean gutxienez, debekaturik zegoen Hueskako azokan «bascuenc» mintzatzea. Oihenarteren izkribuen argitan, nabarmen agertzen zaigu debeku horren kokoa: Aierbeko eskualdean gutxienez, euskara izan da bertakoen mintzaira uste genuen baino beranduago arte.

A. San Sebastian-ek zai gauzka. Eta kezka eta azterpide hauetxek eragile abiaturik bide da ere orain Lacasta jauna, Jaka-tarra jaiotzaz eta euskaltzale sutsu.

Batak eta besteak hemen gaituzte hirrikan, zer aurkituko zait, eta berri harrigarriaren segurtantzia.

Biarnori buruz zer aurkitu duen galdetu diot orduan Romateti; eta erantzuna hau izan da: «la trace basque n'est pas aussi frappante en Béarn qu'en Haut Aragon» (= euskal azterna ez dela Biarnon, Aragoa Garaian bezain nabarmen eta harrigarri).

Hots, Biarno Garaia irakurri buruz behintzat, hauxe iruditu zait sineskaitzena. Zeren-eta beste ipartar batek, Euskaltzaindiko buruorde den Haritxelharrek hain zuzen, beselakoz azterna argitsu bat aurkitu baitigu berriki.

Eskulatarak, jakina denez, biarnesak izanik ere, euskaldunak dira; Inhasi-n (erd. Féas), inguru haietako ene lagunek diotenez bederen «hirutarik biak» dakite euskaraz; eta gauza bera Landa ondoko Sarraltzune-n (erd. Barlanes).

Haritxelharrek besterik eta harrigarriagorik aurkitua du; eta argitara duen dokumentua ez da XII. mendekoa, XIX.koa baizik (ikus haren «L'Oeuvre Poétique de Pierre Topet Etxahun, 1970, 502-503»). Eskulako dokumentu hori hemen osoki ezi emanik ere, hona hemen gure gaiari buruz irakur dezakeguna:

«Séance du Conseil Municipal du 28 avril 1861.

Le Conseil Municipal...
...vu que 113 paroissiens des hameaux de Géronce et d'Aramits ont toujours recours à M.le desservant d'Esquiule pour leurs besoins spirituels pour la raison qu'ils ne savent parler que la langue basque...»

Jeruntzen eta Aramitzen, beraz, duela ehun urte gutxienez baziren oraindik euskaraz baizik ez zekiten biarnotarrak. «Oraindik ere» diot, eta hala da; leku-izenak eta urriegi diren dokumentuak euskararen ATZERAKADAREN lekuko baitira Biarnon, eta ez alderantziz.

1861ko paper horrek berak, bestalde, Eskulako apaizaren eskuetan jartzen ditu Oloro-ko Senpere hauzoa (St. Pée), baita Inhasi eta Arhantze herriskak (erd. Féas eta Ance), hirurok betidanik Biarnoko parte; eta lerroen giroan soma daikeenez, hein batez bederen, garai hartan euskaldun. Gaur arte, gonbarazio baterako, Bidaxuneko hauzo bat euskalduna izan da (erd. Bidache), baina alderantziz Oragarrako beste bat (erd. Orègue) kaskoina.

Haritxelharrek eta Romatetek aurkitu dituzten dokumentuek, horretara, gertakari hits eta ezagun bat erakusten digute berriro: lerroen artean bilatuz, paper zaharretan hausnartuz, hitzezdiz esandakoak argituz, arrastaka ibiliz, bazterturik, ostikaturik, analfabetismo osoan kokaturik, ezindurik, beti isilik, Aita Agirretxek berriki oso egokiro aipatu dituen azken zapalduak ageri direla behin eta berriz: euskaldun hutsak. Euskaldun soil horiek, gizarajoen azken zolan somatzen ditugu ere Jeruntzen, Aramitzen, Inhasin, Aierben, Jakan. Beren herrian bertan azken paria bihurturik. Baita geuk ere Euskal Herri-tzat jotzen dugun eskualdetik at. Betidanik «odd» eta korotz, ukaturik jaito, ukaturik eta lotsaturik hazi, kondairatik at bizi, mendarte galdu urrunetan akitu, ukaturik zahartu, eta ukaturik eta mesprextaturik hil. Horra patua. Kaliforniako azke indioak bezalaxe.

Horra hor ilunpeetan hislatzen de negia garratza.

Hora hor zer den eta zer izan den gure arteko «harki» ustelek jasan ezin dezaketen «euskal rascismo» beldurgarria!

Hain beldurgarri non, kriseilu bat eskuetan, bilatu behar baititugu gaur, bazterrak harrotzeko beldurrez, haren arrasto ezabatuak.

LARRESORO

ZERUKO ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakeitza) 7 pezeta

Irakela:
«Gráficas Navesal»
A. Adoim. 1.ª FARRERA
D. L.: NA. 88-1968


Egun Egunekoa

Xori habia-gabekoak.

Udaberriaren lehen printze-kin batera, Nafarroako herri batetan, egunerokoak dionez, neskato-mutikoek xoriei habiak ezarri dizkiete.

Mundu aldrebestu hontan, animaliek gizakiak baino zorion handiago dukete. Hain zuzen ere, nork ezarriko habiak iheska dabilen hainbeste gazteri?

Daniel Ibargetti



TOLOSAKO HAMABOSTALDIA

Lerro hauk argitaratu orduko, Tolosan hasiko da EUSKAL KULTUR HAMABOSTALDIA. Maiatzaren 5ean, hasi eta hilaren 20ra, arte iraunen du, era gutzitako saiok eskainiz, egungo euskal kulturaren agerpen aberats bat azaldu nahirik. Hona hemen lehen asteko progama, labur labur:

Hilaren 5ean., arratsaldeko 4,30etan., San Frantzisko ibiltokian, Euskal Liburu eta Diskuren Azoka. Egun berean, eta gaueko 10,45etan., Beotibar Pelotalekuan eresi eta kanta jaialdia, Zarauzko haur kantariak, "Oleskariak" eta Pantxo eta Pello bikotea.

Hilaren 6an., goizeko 11,30etan., Zabala jauregian, Euskal Artearen Tolosako II Erakusketa. Erakusketa honetan egungo euskal artistarik ezagunenak azalduko dira, eta Hamabostaldira osoan irekirik jarraituko du.

Egun berean, goiz eta arratsaldean, Euskal Liburu eta Diskuren Azoka.

Hilaren 8an., arratsaldeko 8,30etan. eta Aurrezki Kutxa Muzikazaren Aretoa, Ramuntxo Kanblong Euskal Ekonomiararen etorkizuna: Euskal Iparraldetik begirada bat delako gaiaz mintzatuko da.

Biharamunean, asteazken arratsaldean, toki eta ordu berean, Jenaro Garate ekonomiarik Euskal Herriko Ekonomia Merkatu Batura begira aztertuko du.

Ostegun, arratsaldeko 8an., Gurutz Ansola, Ramuntxo Kanblong eta Jenaro Garate jaunek jendaurreko elkarrizketa bat osatuko dute Euskal ekonomiararen gaurkoak eta etorkizunak. Moderatzaile, Baleriano Bakaikoa jauna.

Hilaren 11an., arratsaldeko 7,30etan. eta gaueko 10,30etan., Leidor Zinemaren Nafarroa: Lau haroak deritzan filma.

Hilaren 12an, azkenik, goizeko 10etan. eta Leidor Zinemaren bertan, Nafarroa: Lau haroak izeneko filma aurkeztuko da berriz, baina haurrentzat propio eraturiko saio batez.

Gaueko 10,45etan., "Oskarbi" taldea, Mikel Laboa, J. M. Zabala, Gorka Knor eta Harza anaiek, Beotibar Pelotalekuan eratu den jaialdian parte hartuko dute.

BESTE ZENBAIT BERRI

Irakurleak dakikeenez, eraten ari da Tolosan bi hizkuntzako Antzerki Lehiaketa. Euskarazko bost taldek hartu du parte, eta gaztelaniako seik. Azken saioa maiatzaren 9an izanen da, Urnieta "Egi-billa" taldeak Inaki Begiristainen "Kiretsa dario" antzerki lana aurkeztuko duelarik.

● M. Solead Erbiti Nafarroako Ikastolako zuzentzaile izendatu berria izan da. Erbiti andereñoa Ultzaman jaioa dugu duela 31 urte, eta maisutza eta Lege-ikasketak eginak ditu. Aurrerantzean bere zereginik bereziena Nafarroako Diputazioaren babespean ari diren ikastolak zaintzea izanen da, andereñoi laguntzea eta, hitz batez, bi hizkuntzako heziketa eta irakaskintzari dagokion arazo guztiez erabat arduratzea.

● Dagieneko hamazazpi dira Nafarroako Ikastolak, eta, horrez gainera, beste hamabost herritar euskaraz irakatsi ohi zaie nagusiei. Badu, ba, zereginik gure ultzamarrak.

● Tafallan, eta bertako dantza taldea antolatzaile delarik, eratzeko da ekainaren lehenengoetan Nafarroako dantza guztien ageraldi bat. Erriberako nahiz mendialdeko dantzek parte hartuko omen dute, eta oraingoz hitza emana dute Otxagabia, Iribas, Leitze, Luzaide, Imoz eta Iturengo taldeek.

● Mahai gainean dugu ere albiste nahiko bakana. Eta bakana delako ematen dugu, ez gesterik. Ezkontza adiarazteko txartel hoitako bat da eta honela dio, hitzez hitz: "Krutwig-Sagredotar Federikok, Lovaniako eta Parisiko Unibertsitatean irakaste den Caers Agnesekin, Lovanian, 1973ko. Ephaillaren 31an. ezkondu dela iakin-arazten de-rautzu".

Beraz, Federiko Krutwig ezkondu egin dela, alegia. Krutwig jauna Bizkaiko Getxon jaioa dugu eta euskaltzaina. Zorionak.

ZABAL

Baionatik jaso dugu gutun bat. Iparaldean sortu berri den elkarte baten albisteak aipatzen dizkigu. Hona hemen harako gutuna, irakurleak ere irakur ahal dezan:

"Agur berrikerari bezala halarazten derautzugu lerroaldi hau, jakin-arazteko nola Baionan beste kultura batasun bat gehiago badagoela orai Muntatu berri berria da. ZABAL du izena. Haren helburua, gaineratekoena bezala, euskal kulturaren sustatzea da, gisa berezi batez, ipar aldean idazle berriak sort-araziz eta moldatuz.

Elburu horren betetzeko, batasunak beraren izeneko agerkari edo aldizkari bat argitaratuko du bi hilabetetarik. Idazkeraren aldetik ipar aldeko euskararen funtsatua den idazbidetik ibiliko da batasunari buruz, eta, gaien aldetik berriz, ez da mugarik izanen, orok orotaz idazten ahalko baitu, baldin euskal kulturaren sustatzea eta aberastea badu bilatzen.

Agerkari horren lehen zenbakia hilabete huren 25ean. presentatua izanen da, kazetari eta radiolariari, arratsaldeko lauak eta erditan, Baionako Euskal Erakustokian. Ka-

ria hortara, bilkura hortara gomitatzen zaitugu. Etorri ahal ezina baldin baduzu, lehen zenbakiaren ale bat bialduko derantzuku eskatuz zure sailean aipamen bat egin diezozun.

Delako bilkura hortan ikusiko zaitugulako esperantzan, gure agurrik bizienak zuri".

Ez genuen, ez, Baionara joateko izan hilaren 25ean. Lana edo, hobeto esan, "beharra", alde batetik, eta urrutit samar bizi izatea bestetik. Izan ere, oraintsuan oiartzuar batek adarra jote aldera esaten zigunez, oiartzuar eta ingurukoak "Europar" bizi omen dira, gainontzekoak, aldiz, "peninsulan" nonbait.

Dena den, gure eskerrik sutsuena Baionako ZABAL elkarte berriari, bai gomitzio horregatik, noski, baina are gehiago bidali digun informazioz. Irrikaz zain gaude noiz aldizkari berri hori eskura ahal izan.

Inork nahi balu aldizkari horri hartu, edo elkarte horrekin harremanetan hasi, idaz beza honako zuzenbide honetara: ZABAL Batasuna. 31 Bourgneuf Karrika - 64100 Baiona.

UDAKO EUSKARA IKASTAROA

Dagoeneko moldatua da aurtengo Udako Euskara Ikastaroa. Aurtengo hau bostgarrena dugu, eta Deustun eratzten den hirugarrena. Eraketa, bestalde, Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura Mintegia eta Euskaltzaindiaren Bizkaiko Alfabetatze Batzordeari zor zaie.

Lau izanen dira ikastaro honetako mailak, hots: 1.—Tutik ere ez dakitenentzat. 2.—Hasi berrientzat, hontaz edo hartaz zertxobait dakitenentzat. 3.—Euskaraz mintzo direlarik, erraztasunik ez dutenentzat. 4.—Alfabetatze deritzana, euskaraz jakinik, irakurtzen eta idazten moldatzen ez direnentzat.

Egunak, berriz, uztailen eta abuztuan, hiru taldeetan banaturik: 1.—Uztailaren 2tik. 31ra. Seo ordu egunean. Goizean 9,30etatik. 12,30etara. Arratsaldean, 4etatik. 7etara. Matrikula, 4.000.— pta. 2.—Egun berdinetan, hau da, hilaren 2tik. 31ra. Lau ordu egunean. Arratsaldean, 4etatik. 8tara. Matrikula, 3.000.— pta. 3.—Abuztuaren 7tik. 31ra. Lau ordu egunean, arratsaldeko 4etatik. 8tara. Matrikula, 3.000.— pta.

Inork nahi balu xehetasun gehiago, galda beza Deustuko Euskal Kultur Mintegian edo Euskaltzaindian bertan (Ribera, 6 — Bilbao. Tel. 212745).

NARRAFOA: LAU HAROAK

Esan bezala aipamenean bat zor diogu Caro Baroja anaiek moldatu duten Navarra: Cuatro estaciones deritzan filmari.

Izenburuak dioenez, filma honek lau aldi erabat bereziak ditu: Nafarroa, Nafarroa-garaiko iparalderri lotzen zaio erabat, Lantzeko ihauteriak ezin hobeto agertuz, Lantzen bertan ikus daitekeen baino askoz ere hobeto hain zuzen. Udaberria, hego eta erdi inguruari dagokio, Aste Sandua eta beste azalduz. Hirugarren aldia, udara, uztak eta herri jaiek osatzen dute; eta, amaizteko, udazkena, mahasti eta ardantzak giroa daniola.

Filma hau dokumentu hutsa da, batere argumentazio eta subjektibaziorik gabe, eta honetan datza, behar bada, bere balorik nabariena, dokumentu soil bat baino ez dela alegia, bi ordu eta erdi buruan agertzen diren irudi, gertakizun eta ikuspegiak edozein hitz eta azalpen baino esankorragoak bait dira.

Halaber, filma, etnografiako bilduma paregabe bat da. Ez dira, noski, Nafarroako herri eta bizimodu guztiak agertzen, erdi galduak, galzorian eta laster galtzeko arriskuak daudenak baizik: Errokariko gaztagintza, Ezkako almandiak, Leitzeako haizkoragileak, Iturengo "yoaleak", abarkagintza, kaikuak, mutil-dantza, etab. etab.

Bestalde, ezin baliotsuago da esku-langile bakoitzak nork berak lantzen duen esku-langintzaz mintzo dela, apal apal, herri xehea mintzo den bezala, hala nola luzaidiarrak euskaraz, baialda hartako euskalkiaren lekuko agertuz.

Benetan interesgarria Caro Baroja anaien filma hau, gutzira hamabi orduko filma omen da bere osotasunean, ikusleari bi ordu eta erdiko laburpen mirezgarria eskaintzen zaion arren. Dena den, zer ez ote zen izanen filma hau Humboldték eta Bonaparte Printzeak horrelakorik egin ahal izan balute; edo, hain urrutit joan gabe, Azkuek berak? Hala ere, horra hor, oraindik ere, pixkaka pixkaka, edota nahi baino azkarrago, hanka egiten ari zaigun herri baten arima eta hezikera. Honetaz, nahiko hunkigarri dira filmaren azkenean antzuten diren hitzak: GIZONAK. SINESMENAK ETA TEKNIKAK BADOAZ... ETA BESTE BATZUK DATOZ... ONAGOAK OTE DIREN EZ DAKIGU. NAFARROAK AHAL DU, ETA BEHAR DU, BERE ANTZINAKO EZAGUGARRIAK GORDE.

Bada besterik. Filma hau diru asko kostatu zait "Principe de Viana, eta, hala ere, kostatuak kostatu, merezi zuen. Baina, behar bada, inork gutik espero zezakeen filma honek errentarik eman ahal izanen zuenik, eta hara non hasia da ematen.

Izan ere, bere garaiean esan genuen Bilbaoko Euskal Antropologia Astean filma honen aurkezpenak izan zuen harrera ona. Egun bakar batetarako zen programaaturik eta bi egunetan azaldu behar izan zuen, jendea zutik eta pasilotan zehar gainezka, egunkarietan batere zabalkundetik egin ez zela gainera.

Iruñean zer esanik ez. Ostegun Sandu egunez Jose Mari Satrustegi adiskidearekin hitzegin genuen telefonoz, eta beste zenbait gauzaren artean filma honetaz mintzo zitzaigun pozik asko. Izan ere, egun hartan (ostegun sanduz) bi aste eta erdi betetzen ziren filma hau Iruñeko zinemarrik hoberenean aste eta jai egun, eguneko hiru saiotan, egundainoko betekada eta harrera onarekin ematen ari zela.

Oker ez bagaude Lizarran (Estella) ere izan da gutienik saio bat, eta non-nahiko eskariak kumplitu ezinik ari dira arduradunak, hiru kopia bino ez bait dago egunik. Hala ere zorioneko gaude Gipuzkoan, Tolosako Euskal Hamabostaldiran barrena filma hori ikusteko aukera izanen bait dugu, goraxeago aipatu dugunez.

IRADIER

Gasteizko "Manuel Iradier" kanta taldea jo-ta-ke ari zaigu aspaldi honetan, Gasteiz eta Gipuzkoan eta Euskal Herriko kanpo ere. Gagoeneko ezin uka bere lan baliotsu eta ezin besteko arrakasta, 1961 urtean bere zuzendari den Emilio Ipinza jaunak sortu zutenetik.

Ezin aipatu haina dira honako hamabi urteotan izan dituen saioak eta irabazi dituen sariak. Tolosa (hiru urtetan), Torreveja (birritan) eta Bartzelonako (bi urtetan) lehiaketetan irabaziak dituen sariak guztiz adiarazgarriak dira alde batetik. Aipagarriak, bestalde, Olot, Soria, Iruña, Laussane, Arezzi, Hueska, Haro, Gasteiz eta Mairuelegorretako jaialdi eta kanta saio ospetsuak.

Joan den Aste Sanduan, berriz, Gipuzkoako bi hiritan talde honi entzuteko beta izan dugu, Ostegun Sandu arratsaldean Iruñean eta bihamunean Eibarren. Eibarko saioari bagazozkio, jendeak ez zuen behar bezala erantzun. Berrehun bat entzule edo izan ginen milarentzat haina den antzokian. Jendea erruz atera ohi da orain herriko kanpora jai egunetan, eta are gehiago Aste Sanduaren inguruan. Bestalde, hiru hilabeteren buruan, Iradier taldeak Eibarren eskaini digun hirugarren saioa genuen azken hau, eta behar bada gehiegizko honen denbora gutitan. Dena den, besterik ezean, ondo irabazi zituzten gasteiztarrek Ostegun Sandu arratsaldean bildu ginen berrehun entzuleen txalo beroak.

Aita Madinaren "Agur Maria" delakoaz ekin zion saioari. Ondoren, XVI mendeko hiru polifoni-kanta, latinez eta gaztelaniz. Gero, bi kanta italiar eta errusiar beste bi, Jaroff-en "Volgako Arraunlariak" eta "Stenka Rasin" (Marixu nora zoaz?), azken bi hauk euskaraz.

Bigarren aldian, Ipar Ameriketako beltzen girotako lau kanta, Gabon-kanta bat, eta amaizteko, Ipar Euskal Herriko "Goiz argi hastean" poema herrikoia eta, azkenik, Aita Madinaren nahita nahiezko "Aita Gurea".

Entzuleen txalo aspergaitzari nolabait erantzun beharrez, Iradier Taldeak programaz kanpoko beste kanta bat eskaini zigun, honen ezaguna dugun "Aurtxo Seaskan" hain zuzen, arestian hil zaigun Gabriel Olaizola hernaniarraren omenez.

Iradier Talde alehen lehen mailako azaldu zitzaigun Eibarren. Agian goragoegiko mailako, zenbait kantatan. Behar bada, herrietako saio soiletan herrikoia izan zitekeen, dena den, ezin uka bere gaitasun eta trebetasuna. Bakarka aritu ziren kantariak ere oso onak, M. Gurutz Ormazabal batipat.

Aurkezpen eta gainontzeko azalpenak Eibarko "pro-hombre" batek eman zizkigun, asmatu ezinezko erdara sofistikatu batez. Euskara ahaztu eta erdararik ondo ikasi ez. Lotsagarri.

DENETARIK

Kimu Club delakoak eraturik eta Euskaltzaindiaren babespean, hasia da Azkoitia alfabetatze ikastaro berri bat. Honeko ikastaro hau apirilaren 24ean hasi zen, euskaraz irakurtzen eta idazten trebeegi ez diren euskaldunentzat bereziki moldatua.


● Egun berean, Deban, antzerko beste ikastaro bati ekin diote bertako Ikastolan. Nagusientzat propio burutuak ere, ortografia, deklinabidea eta aditzari buruz batez ere. Ikasaldiok astearte eta ostegunetan izanen dira, iluntziko 9etatik. 10ak. arte.

● Hilaren 22an., Bazko igandez, "Bolantak" eratu ziren Luzaidean. Han bildu ziren, ohi denez, "zaldizkoak", "zapurrak", "marilariak", "gorriak", "banderaiak", bai eta, noski, "bolantak" ere.

Dantzatu ere dantzatu zituzten, nola ez, usariozko dantzak: "Bolant-yantzak", "muxikoak", "lauetan-erdizko", "ostelarrak", "lapurtar-motzak", "luzaidiarrak", "eskualdunak", "sorginak", "zapu yauziak", "atxeta-tupinak" etab. etab.

Jai zela eta, jai handia gainera, han zen ere "Xalbador" bertsolaria, luzaidiarren poz eta atseginerako, mugaz honuntz nahiz haruntz, denak bait dira garaztarrak, eta, jakina... "eskualdunak".

AMATINO



Gasteizko "Manuel Iradier" taldea

GOSEA AFRIKAN ETA ASIAN

Gaur egunean, egirik garratzena auxe da: Gosetea azaldu dala Asian (Indian, Filipinasen, etab.), Afrikan (Mauritania, Senegalen, Malin, Nigerian, Tchad, Volta Goikoan, etab.). Nazio atzeratuenerarik ditugu, oso txiroak. Beste laterri batzuek, esate baterako U.R.S.S.ek, ainbat gari, patata, guriñ, erosi dute kanpoan barneko egimen kaxkarrari laguntzeko eta gosea aldentzeko. Denok, dakigu beraz, U.R.S.S.eko sozialisten uzta makalenetarikoa izan dala. Txinak berak, bada ez bada ere, gari eta oriodun asko erosi du Kanadan eta USAn.

Eroste onetik, eta Indiarenak, alea urritu egin dute munduan; orain 30 milioi tonclada ale bakarrik dirateke mundu guztirako. Benetan arrisku aundia aurtengo uzta berriro ere eskaxa izango balitz. Beraz zer janikez dateke lurralde askotan (U.R.S.S., India, Filipinas, Afrika Sartaldean) gariak eta irrisak geiago urritzen badira, bestetariko produktu asko bere oriodunak, arrainak, bei-idisko aragiak, etab.), urritu egin dialako.

Nazio sozialisten iritziz, U.R.S.S. buru dala, egoera illun onen sus-traiak Jaungoiko kapitalisten arloan dira eta Jaungoiko kapitalistak oiek dira: euria, eguzkia, otz-beroa, edurra, izotza, etab., ezorduetan agertu diralako edo neurri egokian agertu ez diralako. Sozialisten egiturak, beraz, munduko onenak, egokienak, bidezkoenak dira, baiña, orraitio, euri, eguzki, elur, izotz eta edotariko izaki egikorrek laguntasuna ekarri bear dute. Izaki egille oiek aurtan bide onera etortzen ez badira gosea aundia izango da.

GOSEAREN ERAGILLEAK

Idorte edo euri ezak Afrikan eta Asian, gosea sortu du. U.R.S.S.en edur eta izotz ezak, aldi egokian, kalte asko ekarri du. Filipinasen gaitz berru batek irris-landarak suntsitzen ditu.

Eguraldien aldaketak kaltegarri bihurtu dira bai lurgintzan eta baita itsasoetan ere, arraiñak aldendurik.

Gure aldamenen bere gosea azaltzen da, batez bere ume eta agurren artean; oien arpegia ikustea baiño ez dago. Etxe askotan, sendi asko janariz ez dira ondo asetzen, orretariko erakunde bidezko bat ez dalako lortu oraindik. Erakunde bidezko bat bagenu, gizakume guzti-entzat izango litzake naiko janari eta edari. Egungo baldintzak, izadiak eskeintzen dizkigun baldintzak era onean erabili ezker, 15.000-17.000 milioi bizilagunentzat naiko jan-edari bilduko litzake.

Baiña biotz gogorrekoko gera. Gu ongi bizi ezker, lagun urkoa go-searen goseaz ilzorrian arkitzen bada edo iltzen bada ere, guri zer? Berekoikeria larregi toki guztietan, maitasunaren ordez gorrotoa, au da, gizatasunaren ordez basakeria, gizate alaitsu baten ordez, gizarte illun bat, ifernu edo ifernu atari antzekoa naigo degu. Era onetara ezin dogu ekintza bidezko bat lortu.

Gaurko gizarteko egiturak, berekoiegiak dira, baita emen, sartaldean, mundo kapitalisten artean eta baita, sartaldean bere, esate baterako, U.R.S.S. en, sozialisten gizartean. Nazio aberatsak, eta U.R.S.S. sartzen degu aberatsen taldean, laterri txiroentzat bear dan besteko laguntzarik ez daukate. Gosea aldentzeko, ardatz bearrezkoena, nazioarteko laguntasuna da, batetik besteari laguntzea, baiña laguntasun ori irixten eb bada, dena bihurtuko da berriketa uts, dena izango da mintzaldi, batzar, batzorde, baiña egizko egiterik ez eta egite onak, ekintza onak eskatzen digu izadiak, arazo guztiak zuritzeko.

MUNDUKO ZENBAKI BATZUK

	1948-52	1971	1971/1948-52
Garia (1000 t)	171.151	343.111	100,47
Irrisa (1000 t)	167.479	307.416	83,55
Artoa (1000 t)	139.852	307.796	120,09
Soja (1000 t)	15.952	48.291	202,73
Bei-idisko aragia (1000 t)	40.732	81.455	99,98
Esnea (1000 t)	258.303	400.932	55,22
Biztanleak (1000)	2.497.566	3.722.927	49,06

S. LARREA

Ipar Amerikaren erasoa

Atlantikako elkartea aldatu beharrean arkitzen dela dirudi. Politikoak puntu onetaz behin baino gehiagotan mintzatu dira. De Gaullek, 1958. urtean, garbi azaldu zuen bere iritzia. Arrezker, Frantziak OTAN-eko batzarretan ez du parte artzen. Batzarkide jarraituko du baina gauzak aldatzen ez diren bitartean Frantziak ez du parte artuko. Kennedy zanak, berak ere, 1962 urtean, gauzak aldatu beharrean arkitzen zirela adierazi zuen. Baina, alaz ere, gauzek lehenean jarraitzen dute.

Oraingo onetan, ordea, aldaketak izango direla badirudi. Kissingerrek azaldu dituen iritzia ez dira asmo on uts batzuk bakarrik. Epe bat jarri du Kissingerrek. Urte onen bukaera baino lehen, Nixonek Europara egingo duen bisita baino lehen, Atlantikako elkar-tearen aldaketek erabakirik eta ta-xaturik egon behar dute.

Begien bistan dagoen gauza da. Sartaldeko Europa, ekonomia arlean, geroz eta indartsuago azaltzen da. Duela ogeita bost urte beste kuku baten soinua entzuten zen. Bigarren munduko gudua zela eta Europa lur jota geratu zen. Ipar Amerikako dolar laguntza bitarteko zela Sartaldeko Europak bere burua altxa ahal izan zuen. Diru laguntza ez ezik militar "laguntza" ere, gauza nolabait esateko, izan zuen. Ipar Amerikaren babesean edo aintzindaritzapean OTAN sortu zen, komunismoaren indarrei frentea emateko asmoz. OTAN erakundearen barrutian bat bakarrik izan da agindu eta erabaki duena: Ipar Amerika. Beste denek, bere men egon behar izan dute.

Baina, lehen arin zen zama, gaur egun, astun bihurtu da. Ipar Amerikaren ekonomia, dolarraren krisia lekuko, ez da uste zen bezain indartsua. Problema asko sortzen ari zaio. Nolabait, bere zama arindu nahi du. Ikuspegi onetatik aztertuta behar da beraz Kissingerren gutuna.

Nixonen mutil onek dioenez, Europa batzen eta indartzen ahale-ginduko da Ipar Amerika, baina orren truke komertzio gauza batzutan Europak amor eman beharke du. Itz gutxitan esateko, Europako azokaren atatak ireki beharrean arkitzen dira Ipar Amerikako gauzek salbidea izan dezaten.

Bigarrenik Ipar Amerika bere armada edo gudarosteari Europan eusteko prest dago, baina Europak diruz pagatu behar du laguntza ori. Zenbat pagatu beharko duen gero erabaki beharko da, baina dena den, Europak militar laguntza ori pagatu egin beharko du. Beraz, Ipar Amerikaren zama arindu egingo da.

Irugarrenik. Ipar Amerikak ez du Europako eta Asiako bere lagun aurka ezertxo ere egingo, Kissingerrek dioenez. Bide batez, ordea, Europak ere serioa eta leial jokatu beharko du Ipar Amerikaren onaren edo interesen alde. Irugarrenko puntu onetan ere, Ipar Amerikaren eskaria garbia da. Berak orain arte bezala jarrituko du, izan ere, Europan interesen aur-



Epe bat jarri du Kissinger-ek

ka noiz jokatu du? Bere bidea lehengo izango da. Baina Europak adatau egin beharko du posturaz. Europak serioa jokatu behar duela adierazten duenean zer esan nahi duen ere garbi dago. Europak, alegia, zenbait puntutan ez du Ipar Amerikaren alde jokatu edo behar den ainbat ez du lagundu. Gerora leial jokatze-ko eskatzen dio Ipar Amerikak.

Leial jokatze orrek zer esan nahi duen denok dakigu. Europak, dolarraren arazoan ez dio bere buruari bakarrik begiratu behar, Ipar Amerikaren interesak ere gogoan izan behar ditu. Europak, alegia, Ipar Amerikaren interesen morroi izan behar du. Ez dago gaizki...

Laugarrenik. Ipar Amerikak aha-legalak egingo ditu pakea billatzen eta Sartaldeko estatuuekin dituen bihurri aldiak zuzentzen. Sortalde eta Sartaldeko pakeatze eginkizun onetan Europan laguntza begi onez ikusten eta ikusiko dutela dio Kissingerrek. Aurreko puntuak ez ezik onek ere badu garrantzirik. Europa neskametzat edo laguntzailatzat bakarrik artzen da. Rusiarekiko arremanetan Ipar Amerika izango da erabakiko duena. Europak Ipar Amerikari laguntzen dion neurrian izango da jator eta leiala. Europa ez da nor, bere kabuz, gauzak erabakitzeke. Bere eginkizuna, berriro ere, neskame edo morroi izatea da.

Bosgarrenik. Kissingerrek petro-leo edo energia arazoa aipatzen du. Puntu onetaz mintzateaz pixka bat arritzekoa da. Atlantikako elkar-teaz puntu onek zer ikusi andirik zuenik ez zirudien. Baina, petro-leoa sortzen den lurraldeetako estaden postura gogortzen ari dela oharitzen bagara ez gara ainbat arrituko. Petroleoaren salneurria goraka doa. Petroleoa sortzen du-

ten estaduek geroz eta eskari gogorragoak egiten dituzte. Orain arte, estatu inperialistak ederki zupatu dute. Irugarren munduko estaden ahuleziak ederki baliatu dira. Emendik aurrera gauzak piska bat zailagoak izango dira. Beraz, Ipar Amerikak Europako buruzagiei, estatu inperialista batek beste estatu inperialistei, arazo gogor orretaz ohar eraztea oso normala da. Beren interesak kolokan daudelarik elkartu beharrean arkitzen dira.

Seigarrenik. Japon dugu bitarteko. Ipar Amerikak, Japon Atlantikako elkar-tean batzarkide egin nahi du. Japon geroz eta indartsuago azaltzen da. Japonek asko dezake. Kapitalismoaren zaitzaileek batera jokatu behar dute. Batera jokatze orrek, ordea, Ipar Amerikaren morroi edo mutil izatea agintzen du.

Zer egingo du Europak? Zer egin du orain arte? Europako buruzagien eta Ipar Amerikako buruzagien interesak mutur joka al dandien ala funtsean berdinar dira? Funtsean berdinar izan arren inperialisten artean ez al dira mutur jokak eta borrokak izan eta izaten?

Zer egingo du Europak? Ipar Amerikaren erasoaz jabetu al da?

J. Elustondo

O y a l s . a .

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak
Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA



YOGUR

GURELESA
GOGOZKOENA



TREBIÑO

Martxoaren lehen egunetan Arabako "Cámara Oficial de Comercio e Industria" delakoak argitaratu eman du bere azkeneko boletina, hots, 1972 urteko azkena, eta garrantzi handikoa izango da noski.

Haren orrialdeetan zehar betiko sailak ikus ditzakegu, baina baita Trebiñoko konterriari buruz egindako lan interesgarri bat ere. Egileak: Joxe Manuel Lopez de Juan Abad eta Angel M.º Campo jaunak.

Arabako erdian dauden lur batzuk Burgoskoak dira, sentidurik ez duen Trebiñoko enklabeak osaturik. Gaur egunean ezagutu dugun probentzien zatiketa 1833 urtean egin zuen Espainiako Gobernua, eta jakina da urte haietan haize txarrak zebiltzela Madriden euskaldunentzako. Honela, Bizkaiako eta Arabako lur batzuk Burgosen sartu ziren histori, geografian eta lojikan kontra. Lojika gehiagorekin egindako probentzien zatiketa batean, Pankorbotik Mirandaino zabaltzen diren lurak eta Bizkaiako eta Arabako mugan diren Losako bailada eta San Zadornil haranak, hots, autrigoinen sortaberriak beste probentzia osa zezaketen, Miranda huriburua zutelarik. Lojika... Baina, zortzigarren euskal probentzia izan zedila bedurrak zegoen Madrilgo Gobernuak, eta arrazoiarekin, dudarik gabe.

Halaz ere, goazen gaurkoa aztertzeraz. Iaz Burgosko gobernadoreak Trebiño konterria laster arabarra egingo zela esan zuen Mirandan, baina trukez Mirandako inguruetan dauden arabar lurak Burgosen sartuko zirela, haien artean Añanako Gatzaga, Arabako zazpi taldeetarikoa bat! Bitartean, Arabako "Foru" Diputazioa isil-isilik.

Eta orain Arabako "Cámara Oficial de Comercio e Industria" delakoak azterketan zientifika baten bidez argi eta garbi azaltzen digu gaurko egoera. Hitz hauekin hasten da esandako informez hori: "Hemos hecho un denso viaje por las tierras del Condado de Treviño. Hemos pisado todos los barroes que en invierno tiene el Condado y nos hemos entorcado con ellos. Nos han salido al camino casi todos los perros... Observando, hablando y anotando hemos elaborado este informe. Pero, ¿cómo es el Condado de Treviño? ¿Qué sentido tiene hoy tanta incongruencia administrativa? ¿Qué piensan los treviñeses sobre temas de uso corriente y sobre su pertenencia oficial a Burgos? A estas preguntas hemos tratado de respondernos. Con amor a esta tierra que consideramos propia, y confiando en que Alava recuperará pronto el Condado, SIN CAMBIOS NI COMPONENDAS, ofrecemos este informe que hemos pretendido escribir con humanismo y rigor".

KONTERRIAREN GEO-POLITICA

KONTERRIAREN GEO-POLITICA

Aurrez aurretik esan behar dut Trebiñoko konterriak ez duela mugarik ongi finkatuta. Iparraldetik Gasteizko mendiek eta Ekialdetik Izki mendikateak soilik nolabait mugatzen dituzte konterriaren lurak. Mendebalde eta Egoaldetik konterria, berriz, Arabako lurekin nahasten da. Guztiz hartuta 221'57 km.² du Trebiñok.


Ekialdetik Mendebaleraino Aiuda ibaiak zabaltzen da, eta konterriaren oinarritzat har dezakegu. Erreka anitz, Trebiñon bertan jaio eta gero, Aiudan amaitzen dira.

Bi udal osatzen ditu konterriak, Trebiño eta Arganzongo Lapueblakoa. Trebiñok 2.182 bizilagun du eta Lapueblak 506. Gaineoak 48 herririkatan bizi dira.

Eliza aldetik Trebiño Arabako elizbarrutian sartuta aurkitzen da.

GIZAJENDETZAREN MUGIMENDUA

Prestatu dudana agerian populazioaren mugimendua. Hots, dezake zue gizaldi honetan zehar. Mende



honetan konterriaren gizajendetza edo, populazioa erkikatu zaigula bistan dago. Trebiñoko bizilagunak Gasteizen bizitzera etortzen ari dira. Mugimendu hori indar gehiagorekin gertatu da huri txikietan.

TREBIÑO KONTERRIAREN GIZAJENDETZAREN MUGIMENDUA

Huriak	1925	1965	1970
AGELU	96	48	38
ALBAINA	195	136	133
AXARTE	17	17	6
ANASTRO	310	189	169
ARAIKO		33	36
ARANA	25	7	6
ARGOTE	71	49	38
ARMENTIA	64	30	23
ARRIETA	110	55	47
ASKARTZA	89	45	27
BASSAHURI	118	108	106
BUEGETA			18
BUSTO	48	45	42
KUTXO	62	67	50
DORDONIZ	18	26	15
DORONO	70	66	60
PRANGO		53	44
FUIDIO	81	51	42
GOLERNIO	77	47	43
GANDIBAL		24	15
IMIRURI	65	42	48
ARGANZONGO LAPUEBLA		568	506
LAINO	150	102	77
MARAHURI	70	49	43
MEANA			10
MESANTZA			10
MORATZA	67	26	23
MOSKARDOR		27	26
MUERGAS	62	36	23
OTZILLA			30
HOBEKURI	105	87	72
OGETA		19	16
OTZANA		45	38
PANGUA			80
PARITZA	192	111	82
PEDRUZO	55	34	26
SAMIANO			41
DONESTEBE			17
GALBARIN			4
SAN MARTIN ZAHAR	47	44	45
SANBIZENTEXO			18
SARASA			42
SASETA		23	22
TARABERO	76	38	38
DORRE		30	30
TREBIÑO	438	267	245
UZKIANO	66	64	55
TOBERA HURIBARRI	107	72	47
ZURBITU			20

TREBINOTARREK ETA ARABA

Trebinotarrak arabartzat jotzen du bere burua. Behin eta berriz honela adiarazi du. Esate baterako, 1940. urtean populazioaren % 95'93-ek Madrilgo Gobernuari eskatu zion Konterria Araban sar zezala. 1941. urtean Arabako Diputazioak gauza bera eskatu zuen.

Berriz, 1958. urtean. Beti erantzunik hartu gabe.

Orain, 1972-1973 urteetan, Arabako "Cámara Oficial de Comercio e Industria" delakoak egindako azterketan trebinotarren iritzi batzuk agertzen dira, eta denak ados daude gai honetaz: Trebiño Araba dela eta Araban sartu behar dela.

JOHAN TREBIÑO

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba' dezue
 ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabiltu beti
 Eskuz ba' zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezue erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboia bakarra
 Etxeko-andrearentzat neskerarik egokiena.

JABON LAGARTO!

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Otek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

Musikastea Errenterian

«A ndra Mari» abesbatzak erazten du Udaletxearen laguntzaz maiatzaren 14tik 19ra; Errenterian, euskal musikaz aste hau.

MUSIKASTE honek euskal musikaren alderdiak maitekiro zaindu nahi dituen elkarte gisako taldearen asmo eta kezken lokarri izan nahi luke kulturagintzan.

MUSIKASTEAZ baina **MUSIKURTEAZ** gehiago mintza gindezke gure lanak iraupen luzeagoa izan dezan. Baina honela jaio da haurra. Asko emango duena izanen dela uste dugu.

Aste baten luze-laburrean sartzen da oraingoz ekintza hau, baina amaitzen ez den ekinean jardun nahi genuke.

Errenteriako «Andra Mari» abesbatza da haurraren guraso, baina

musikazale diren elkarte guztien laguntzaz eta bultzadaz sortua da.

Gure elkartasunaren ezaugarri izango da egiten zaion arrera. Denean asmoz, sentipenez eta ahaleginez burutu behar dugun ekintza dugu.

Gutxiren kultura den gure kultura honek denon laguntza eskatzen du kultura arrotz eta indartsuagoek irentsi ez dezaten.

Bestalde hau da kultura orokorrari laguntzeko biderik onena: gurea indartu, gurearekin ere beste aberastu dadin.

Hau da **MUSIKASTE**aren xede eta helburu, hitz gutxitan esanik. Gure ustez etorkizun ona eskeintzen dio gainera euskal musikari.

Jose Luis Ansorena

Donostiako industri injenieroen eskolako euskal kultura taldea

Batzutan, euskal aldizkarietan azaldu da E.K.T. izena. E.K.T. zer den adierazteko bialtzen dizuegu gutun hau.

Duela lau urte, gure Eskolan «Euskal Kultura Taldea» egin zen; gure asmoa: batxileratoan euskal kulturarik ez zigutela eman buruan harturik, karreraren zehar euskarazko klaseak, alfabetatze kanpainak, mintzaldiak eta abar antoltezea. Eta ikus dezakun joan den kursoan egindakoa:

- 1971.eko urrian «Euskal Herriko Historiaren Laburpena» izeneko liburua argitaratu genuen.
- Izan zien euskarazko klaseak, urteoro bezala.
- 1972.eko martxoan, alfabetatze kanpaina bat izan zen.
- Mintzaldi sail edo ziklo batzuk eratuak izan ziren ere:
- Ekonomi sailean, bi mintzaldi:
 - «Economía de Guipúzcoa» (Juan Jose Rodríguez).
 - «Ipar Euskal Herriko ekonomiaz» (Ramuntxo Kanblong).
- Olerki sailean, bi mintzaldi-errezital:
 - «Poemak hitzez eta irudiz» (Xabier Lete eta Joxe Antonio Arze)
 - «Kultura herrikoien zenbait espresio» (J.A. Arze, X. Lete eta Juan Mari Lekuona).
- Euskarazko sailean, hiru mintzaldi:
 - «Euskararen batasuna» (Joseba Intxausti).
 - «Aditzaren batasunaz» (Patxi Altuna).
 - «Euskara teknikoa» (Jose Ramon Etxebarria).
- Bi jaialdi egin ziren:
 - «Ipar Euskal Herriko abeslarien jaialdia».
 - «Euskal soinu-gailu zaharrak» («ARGIA» taldekoek emana).
- Euskal Unibertsitate baten premia ikusita, hauxe ere egin genuen: talde batean hogeitabi ikasle elkartzu gero, gure karrerari buruzko lan labur batzuk idatzi; gero, lantxo hoik taldekoen artean eskuz esku pasatu, bakoitzak kritika bat egin zezan bi aldetik:
 - Lantxoan erabilitako hitz teknikoan aldetik, ea egokiak diren jakiteko.
 - Gramatika aldetik.
- Horrela, bi helburu lortzen dira: hitz-tegi tekniko bat sortu eta injenieritza, euskaraz hitzegiteko erraztasun eta ohitura bat lortu. I haz lau lan egin ziren, hona hemen haien titulak:
 - «Berezko regulatza» (edo Automatik regulazioa): orri batekoa.
 - «Informatika»: lau orri.
 - «Fisikaren oinharriaz»: bi orri.
 - «Hidroeletrikolak» (edo hidroeletrik zentralak): hiru orri.
- Eta amaitzeko, gohi-mailako ikasleen artean euskal kulturari indar eman nahirik, Euskal Kultura Taldeak SAIKERA LEHIAKETA bat eratu zuen. Lanak bidaltzeko epea maiatzaren 15ean bukatu zen; 10.000 pezetako saria; lanak, hamar folio gutxienez, euskaraz, Euskaltzaindiak 1968. urtean gomendatutako idazkera arauen barnean. Epaia mahaikoak, Joseba Intxausti, Karlos Santamaria eta Ibon Sarasola izan ziren. Saria horrela banatu zen:
 - Lehen saria: «Zenbait mitoen desegitara» (Patxi Urkizu eta Mikel Elorza) —36 orri— 4.000 pezetako saria.
 - Bigarren saria: «Berezkoitasuna» (Andoni Sarriegi Eskisabel) —12 orri— 2.667 pezetako saria.
 - Bi hirugarren sari: «Palestinako herria okupazioaren aurrez-aurre» (Lourdes Soria) —12 orri— 1.667 pezetako saria.
 - «Eboluzioaz saiakera» (Jon Urrujolegi Agrire) —19 orri— 1.667 pezetako saria.
- Lan guztiak benetan aipagarriak, nahiz gaiaren erabilzearen molde-gatik, nahiz tankeraren edo estiloaren aldetik.

Españako Legearen V GN. Historia Asteaz

Apirillaren 11tik 14era, Donostiako Lege-Fakultadean, Españako Legearen V gn. Historia Astea ospatu zan; oraingorako gai au autatua izan zan: «Las Instituciones político-administrativas de Alava, Vizcaya, Guipúzcoa y Pays Basque en el Medioevo y en la Edad Moderna».

Jardungaiaren irakurtzea bakarrik nahikoa da dan bezelako edozein historiari ez dagokion moldaera zerbait autemateko. Euskal Erriaren zati bat «Pays Basque» da: nori zor zaio ain ezbaiezko dirudien sasoin-laritzaren eta ikasngusiaren kutsuko txerto onen asmatzaille izatea? Aurrerago guziok Laburditzat eza-gutzen duguna «Labourde» deritzala adierazten zaigu. Ezaupide bitxia!

Baiña ez da au okerrera. Batzar-lekuko sarreran, J. M. Lakarra jaunaren idazlan jakintsu bat, «Las relaciones entre el Reino de Asturias y el de Navarra» deritzana, eskeintzen zitzaizen presentekoei «esku-erakutsiz»; eta, gainera, Gregorio de Balpardaren liburuko pasarte «autatu» batzu, zeatzago esateko, bere Historia de Vizcaya-ren 160-tik 237-raiñoko orrialdeak. Garbi gelditu zan orduan «Labourde» eta «Pays Basque»-rekikoa, eta ez genuen burutik kendu ahal izan alako burutapen nekagarri bat, alegia, Gregorio de Balparda jaunak euskal historiografiaren jaun aundi bezela irauñ bear bazuen, ezin bestez kutsu alderdikoi eta jakintzaren kalteko bat artuko zuela ikasngusiari dagokionaren izpillu izan bear zuenak. Eta gure lehenengo burutapena osorik egizaturik gelditu zan.

Gregorio Monreal irakasle jaunak 12 egunean Bizkaiko Jaurerriaren sorreraz eta legeko izaeraz eman zuen azalpen garbi eta apaña, eta Eugene Goheneche irakaslearen solasaldi jakintsua ifarraldeko euskal legeez —ongi ageri da gai ortan jakituna dala— entzutea atsegin izan bazitzaigun, beste mintzatzailleen billakuntza-lana berriz balpardakeriaren teoria zaharretatik aruntzago ez zijoala egiztatu ahal izan genuen. Lorente kalonjearen itzala eraka zebillen gaiñean Ibaetako baillaran apirilaren 11-tik 14-era.

Ala guztiz ere, uste genuen, edo obeki, beldur giñan, balpardakeriak teoria berri eta bitxiekin artuko giñuela ustekabeen. Martinez Diaz irakaslearen eta Banus jaunaren solasaldiak ordea oker genbiltzala erakutsi ziguten. Edo Balpardak ez zuen eskolarik sortu, alderdikeria besterik baizik, edo nabarian dago balpardakeriaren zimeldura. Laus Deo!

Martinez Diaz irakasleak, bere lehenengo solasaldian, baiezko borobil batzuen bidez —alkar-izketaldian, ala bearrez, bertan zegoen Bernardo Estornes jaunak iardukiak izan ziranak— Arabako lege-zahar-tasunean finkatu zuen auzia. Auek izan ziran baiezkoak:

- a) Arabako Konderrria Asturiasko erresumaren «zati bat» zala.
- b) Araba lehenengo aldiz Iruineko Erresumari 1.029an erasten zaiola.
- c) Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak osatzen zutela Arabako Konderrria zeritzana.
- d) Beraz, Asturiasko Erresumaren zati izan ziran. Tesi zaharrak, jakin ohi denez, Francisco Martinez Marinaren «Diccionario Geográfico-Histórico de España»-ko ALAVA artikulutik arturik, Lorente berak erabilili zituenak. 1802an idatzitako lan onek, euskal lege zaharren oinharriak jazartzea izan zuen xedetzat. Feudal auzi bati buruzko oldeko zimardika bat eta erregeen ahalmenaren izaera izan ziran oker oien funtsa. Martinez Marinaren aurreko tesiak, beste aldetik, Aurreko urtetan, Jordan de Asso eta Miguel de Manuel Rodriguez-ek Bizkaiko lege-zahar-tasuna Larako edo Molinako libertadeekin berdindu nahi izan zuen. Ahalmen-ideiazko zimardikari lege-zaharren auziarekikoa erasten zaio. Balpardakeria, ortik batere aldendu gabe, lerro ontan kokatzen da. Eta oraingo balpardakeri berria oker berberetan erortzen da, ala nahita auziari dagokion benetazko lan berri bazterturik (Campion, Gurrutxaga, Ortueta, etab.).


Arabako asturen jaugo goiztiarren hipotesiak ez ditu kontuan artzen gertakari auek:

- a) Arabiarrek Asturias eta Araba lurrez banatu zituztela Alfonso Iren erregetza arte; onek esan nahi du Arabaren jatorrizko berjabetasuna asturen erresumari buruz.
- b) Alfonso IIIaren kronikak ain zuzen onela dio: «Por aquel tiempo se poblaron Primorias, Liébana, Trasmiera, Sopena, Carranza, la Bardulia que ahora se llama Castilla y la parte marítima de Galicia. En cuanto a Alava, Vizcaya, Alaña y Orduña, se halla haber sido siempre poseídas por sus habitantes, como Pamplon, Estella y Berrueza...» Alaba namque Bizcai, Alaone et Ordunia a suis incolis reperiuntur semper esse possessae, sicut Pamplonia, Degius est, atque Berroza...
- c) Alfonso Iaren lehendabiziko arropaketa euskal mugetan, Arabako Velegia eta Ebroren bazter eskuieko erri batzuk «garbituz», 734 urtekoa dala. Pape-retan agertzen dan alkarren arteko etsaitasunaren asieratik kontakizuna. Araba Baskonia Dukerri edo

«Galia Comata»-rekin —historiako izatasun egiztatua dana eta balpardarrentzat ez ezaguna— lotu zuten ar-emanekin guztiz desberdiña. Est alabensi oppido Gallia Comatae, dio Eulojio Santuak, arabatar Santxo martiriarengatik; aitormen onek Araba eta Baskonia Dukerriaren arteko ar-eman zahar bat adierazten du, zitekeen bakarria beste aldetik.

Behin eta berriz berritzen diran etsaitasuneko ar-emanak. 743, 757, 794, 850, 866 eta 867 urteetan, astur-leondar erregeek armakin eskuratutako Arabako lurraldeak edozein mugonez baliatzen dira arrotz-uztarria kentzen. Munia, arabatar gatibuak Fruela Erregeari seme bat emango dio: Alfonso II el Casto, Asturiasko errege izango dana. Bere erresumatik erbesteturik, bi bider Araba babestuko dana, Kronikak dion bezela politikako aldakuntzek «bereengana» itzultzeko bidea eman arte.

d) Geroztik Arabako Konderrria Adre Santxa na-



Arabako Konderrria Asturiasko erresumaren «zati bat» zala...

far printzesarena dala; Asturiasko Ordoño IIaren alarguna izan baitzan, gero Alvaro Arramelizekin eta Fernan Gonzalezekin ezkondua. Bata bestearen ondoko senar auek «Arabako konde» aitortzen dira eta bigarrena «konde jerente», onekin konderrriaren egiazko titulua Andre antxarena dala egiztatuz. «...et in Alava et in Castella Fredinando Gundizalviz comitatu gerente...».

«...una cum uxore mea dilectissima Sancia...». Andre Santxaren eriotzaz Fernan Gonzalezek konderrria galtzen du, eta bere ondoreko Garcia Fernandez eta Santxo Gaztelako kondeak, ez dute iñoiz Arabako konde titulua artuko. Arrezkero agirikoa eta oinharritua azaltzen da Arabaren jokaera Nafar Erresumaren barruan. Santxo Aundiaren garaietan, Iruineko katedralaren berrikuntza agirian, Munio eta Joan arabako apezpikuen sinadurak agertzen dira. 200 urte igaroko dira Nafarroarekiko batasuna Gaztelako Alfonso VIII erregeak armen indarrez autsi arte; baiñan ez araba-tarrek, eta batez ere 3 illabeteko setioa jasan bear izan zuen Gazteizek, gogor egin gabe. Au guzti arabiar autoreek, beren gerrateko kroniketan, Araba ta Asturias zeazki bereizten dituztela ahaztu gabe.

Jakiña da, onek guziak ez diela gehiegi axola balpardarrei; orregatik Banus jaunak, bere Gipuzkoako udal-legeei buruzko txostenean, «nafar jabetza» deitu zion 1.200 aurreko gipuzkoar garaiari. Badirudi 1.200 ondokoa ez dala arrezkero «jabetza». Ez da ere «ja betza» Gaztelako Alfonso VIII ak egindako Arabaren arropaketa, ez dute ere nunbait «jabetza»-rekin zeikusirik asturen erresumarekiko arabatar agiriek. Nabarian dago jokaera onen xede nagusia: Arnao-Llorente ta Balpardaen baratze zaharrea aldaska babilandatzea.

Gauzak diran bezela ez ditezke ikusi zera kontuan eduki gabe: Erdiaroko ar-emanak, batzutan ald batekoak, alkarren artean kontraesanekoak, era askotako ahalmen-neurri-bilduma osatzen dutela, eta zerikusirik gabeko dirala pikunde geroko Estaden arteko politikako ar-emanen sistemarekiko berdintzetar finkatutako edozein adierazpenarekin.

Ad probandum egiten dan billakuntza eta nazio-keria edozein zinezko historia-azterketaren etsairi aundienak dira.

Orrela, korzegako aurrei «nos ancêtres les gaulois» delakoa esanaraziz, Lapurdin Joana Arkokoa gorraipatuz, orduko lapurtarrek aren kontra borrokatuztela ahazturik, Seneca eta «la Maja desnuda», Isidro Satnua, Mostolesko Alkatea eta Weiler Jeneral batean sartuta historia-nahasketa izugarri bat eraiki bukatzen da.

JELMIREZ

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Cetaria 10-Urrut. 417751-Etxekoak. 422700 - DONOSTIA

areatza

KASTOLA

Ez dakit, danok jakingo dozuena ez, baiña interesgarria da benetan, gure errian ikastola bat zabaldu dala jakitea. Ikastola au parbulario modura zabaldu da eta iru urtetik sei urtera daukiezen umeentzat bakarrik izango da. Oraindiño ume gitxi doaz, baiña uste dot emetik aurrerantza umeak ugartuaz joango dirala. Ia ba euskal lore barriak ermetzen diran Areatzako baratzean.

Onen antzeko ikastolak Arratia-ko erri guztietan zabaldu dira, Di-man eta Zeanurin izan ezik, baiña laster ikusiko doguz erri oneitan be.

KARPOKO ERROMERIA

Maiatzeko illaren leenengo domekan «Santa Cruz» edo «Karpoko erromeria» deituten dan jai izango da Areatzan. Igaz gauza ederrak antolatuta ebezan gure erriko gazteek jai egun au ospatzeko bai abesiariak, bai txistulariak, bai euskal orkesta eder bat t. a. Baiña aurten ezta ezer entzun oraindiño. Sorpresaren bat emongo ete deuskue aurten? Baiña zelakoa izango da sorpresa ori?

AREATZATARRA

lemona

UNIBERSITATETIK

Denek jakingo dozue, gutxi gorabehera, zein den Unibersitate hau: Bilbaoko Unibersitate Autonomo berria. Kurso bi daroaguz bakarrik, eta oraindik Ciencias eta Medicina baino eztagoz. Urteakaz, emen ipifiko dabez orain Bilbon bertan dagozen beste Fakultadeak; denakaz egiteko «Uri-Unibersitaria» bat. Baiña berria bada ere, gure Unibersitatearen barruan, hainbat arazo zahar egosten da... Igazok gauzak alboan utzita, aurtengoak bakarrik badira lanaldi luze bat emeteko modukoak: Ciencias-ko «no numerarios» irakasleak huelgara urten ziran, euren lan egiteko kondizioak benetan txarrak zirelako. Ille bat egon eta gero utzi zituen hemen jarrera; eta zer atera zuten garbi? Betiko moduan itz onak, eta ezer esaten ez duen legez: «eztagola dirurik...».

Beste alde batetik Ciencias-ko 4 irakasle eta Medicina-koak beste 6, Unibersitatekan kanpora botata dagoz, juisioa euki arte, igazko unibersitate arazoagatik. Sarrikon ere bai Ingenieros-fakultatean bai Economicas-en espedientatuak ere badagoz. Hau, igaz Deusturik bota zituzten ogeita amarrak kontatu gabe.

Horregatik ikasleen artean be berotxu dago giroa.

Ba, honek dira orain arte, aurtengo ikastaroaren berri beroak. Ia arazo hontarako halan edo holan konpoketa bat topatzen daben. Zoritxarrez, ez dot uste konponjuko dabenik.

Tira ba! Bota dogu gure gaurko gaia, baina gure Unibersitatean hau eta beste asko daukaguz erabilitekoak. Urrengorarte, beraz.

LORRATZ

zumarraga

UDABERRI ARGİ BATEN OIARTZUNAK

Gure eliz gizon argiak eratuta, garizuma aroaren arian ospatu dira gogo-jardunak: garizuma asieran emakume guztientzako, Gipuzkoako eliztarren artean guztiz ezagutua dan, D. Antonio Oyarzabal apaiz argiaren ardurapean. Jarduari trebe onek bereganatu ditu enzuleen gogo eta biotzak.

Era berean, aprillaren bitik zozira, D. Jose M. Galarraga, Azkoitiko Erretore Jauna, dala Gizo-

nentzako ospatu dira garizuma aroari dagozkion itzaldi jator batzuk. Bi izlari trebe auek entzuten leiatu da gure erri ona, ausnartuaz jakli dituzten egia sendo eta borobillak.

Gizadiaren eta Elizaren etorkizunari buruz kezkatu agertzen geran une ontan, gure eliztarrek bategitiñik gure eliza-sapaipetan ikusiz, itxaropen argi batek argitzen du gure barrua.

Itzaldi sakon auek, erdera mardulean jalkiak izan arren, geienbat, Euskaldun biotzetako lur goxoan eregiña izan da.

Gomaitasunez betetako itzaldi auek medio, mugitu dira gure erritar asko eta aurtengo aste santuan, iñoiz baiño jende oste aundiagoak ikusi ditugu gure Eliz-barrutiko elizkizunetan.

Pazkoa egun goizean, lore eta intsentsu usai goxo eta guraso eta senideen irribarre eztiarekin babes-turik, Euskeraz Kristau-bidea ikasi duten aurtxoek egindute beren Leen Jaunartzea.

Gaur Pazkoa bigarrena antziñako oitura jarraituaz erromeri eder bat ospatuda, Zumarragako Andre Mariren babesean.

Eta Pazkoa jai aundi ontan Kristau erriarekin bat egiñaz, aizearen lau aldetatik etorri eta Mertzadaria Lekameak emen daukaten etxean, Jaunaren deiturari jarraituaz lekaime jantzia artu dute, eta beste askok betiko maitasuna zin egin diote beren Jaunari.

AZKARRAGA

andoain

GURUTZE DONEAREN jaialdia badatozkigu! Urtea joan eta urtea etorri, baina urtero berpizten ditugu egun hauk. Andoainen bizi diranei eta bizi izan diranei ez zaizkie berehalakoan ahanzikoko gure GURUTZE DONEAREN egun eta jaialdia. Nahiz gertu egon nahiz urrun egon, gogoan izaten ditugu jai hoiak; Andoaindarrontzat badute eraginkorra den halakoxe zerbait. Inguruetakoko herriak ere gogoan izaten dituzte hemengo jai hoiak; uaberriarekin bateratsu izaten direlako edo lehendabizikoetakoak direlako edo, biltzen da behintzat jende ugari. Andoaindik urrun daudenak eta urte guzian herrira irixten ez diranak, urte sasoin hortan geureganatzen zaizkigu. Ongi etorriak danak eta urte askotan honela! Jaialdi zoriontsuak igaro itzazue! Karrikako eta Elizako gorabeherak eta elizkizunak nola joango diren, hemendik landa jakingo dituzue eta berorrexegatik ez noa hemen ipintzera.

Baina gaurko honetan, «Santa Krutz»-ko elizatzon ezarririk dagoen idatzitxo bat ekarri nahi dizuet gogora; borobil-erdian dagoena alegia. Erdaraz dago eta gutxi gora behera honela dio. «ERMITA DE SANTA CRUZ, anexa a la iglesia parroquia de esta villa de AYNDOAYN, cuya patrona es la villa». AYNDOAYN. Andoain, herriaren hitzak edo izenak zer esan nahi duan, behin baino gehiagotan galdezka ari izan gara.

Lekuona jaunari irakurri edo entzun izan diot, Latinetik ote datorren, Antonius izenatik ote datorren, edo izen horerkin zer ikusirik ba ote duan. Mitxelena Koldo jaunak ere honelako zerbait esan nahi du, berak argitaraturik daukan «Apellidos Vascos» idatzian. Bi jakintsu hoiñen aldean gu ezdeusak gara, baina nik galdutzen diet: Ohartu ote zerate bai bat eta bai bestea AYNDOAYN horrek «Antonius» ekin daukan zer ikusia erabat aldatzen dela? Erromatarrek ANTONIUS ez dut uste bein ere AYNTONYUS idatzi dutenik; Hortaz, harrigarria deritzat, AYNDOAYN «Antonius»-tik labaintzea. Lekuona eta Mitxelena jaunek honela diotenean, oin harri bereziak izanen dituzte eta Elizatzon idatzi zuanak gaizki idaztea leikena da, baina ongi idatzia belego, nik deritzat, Andoainen esan nahia erabat aldatzen dela. AYNDOAYN izena, hor idatzirik dagoela, honezkerok lareun urte izanen dira. Lizaurko haundiki edo ahaide nagusia bide zala ezarria izanen da; Lizaurko ahaide nagusiak (Gaurko Jauregi basetxea) elizatzon hau bereganatu nahi izan zuan, agi danean, eta Elizak edo Herriak ukatu egin zion eta orduan ipinia da idatzitxo hori. Orain idatzirik dagoen bezala (inork aldatu ez badu edo inork okertu ez badu)

idazten edo izentatzen bazan-garai haieran, bere esan nahia ez da «Antonius»-tik sortua;

ANDURA erderaz SAUQUILLO (Belar mota bat da)
AINGIRA > ANGUILA
AINGURA > ANCLA (Yunque)

Hiru hitz hoiñen erroitik edo hoietakoa batetik ote dator?

AINDURA-GAIN dala bidezkoena, nik deritzat. Zumea karrika alde hau, zumitzez bete egongo zan; Berrozpe aldea ere ihiaz edo ainguraz osatua egongo zan, noski.

Ez litzake bada haritzekoa izango, gailur honi, AINLURA-gain izena ematea.

Hala ote? Ez ote? Bakoitzak eman dezala bere jakintsu iritzia; nik nire kezka agerian azaldu dut. Eta «Santa Krutz»-ko elizatzonari zor diot nire kezka hau.

TALDEKO BINGEN

bilbo

EZ BEARRAK

Bizitzan gauza guztiak ez dira guk nahi bezela gertatzen. Baina nik ez dut konprenitzen nola ez beharrik gehienak lanean jator dabilzanen arera jausten diran, eta, bitartean, lasai bizi diranak lasaigo bizitzeko era duten. Anaiei oz-tutako odolak indar haundia behar du izan...

Gaur gizon jator biren ezbeharrak agertzera natorkizue. Bat bertsolaria eta, dantzaria bestea.

Bertsolaria ABEL ENBEITA da.

Oso ezaguna euskaldunen artean. Hamaika bertso sakon abestu ditua. Bere herri zaletasuna eta bertsoetarako garra barruraino sartuta dauzkana. Ta orain, edaderik onenean, abestu ezinik gelditu zaigu, eztarikoa mina dala bide. Ezin izango duala gehiago abestu esan dio medikuak, eta sendatzerik ez duala.

Dantzaria SABIN EGIGUREN du. Hau ere danak ezagutuko duzue. Hainbat xapelketa irabazi ditu: Bizkaikoa, Euskal-Herri osokoa, Erregelena etab. Dantzari talde askoren irakasle eta buru. Euskal Dantzarien Biltzarrean Bizkaiko buru izana. Eta azken urteotan gure dantza zaharrak, ziran bezela, heuren sustraitik ateratzen, jo hara eta jo honera, gelditu gabe dabilena. Ta guzti hori egun osoan lan egin ondoren. Baina hezurra gastatu zaito «ingle» alderdian (artrosis) eta ezin izango du gehiago

dantzarik egin. Honi ere ez dala osatuko esan dio medikuak. Hala eta guztiz ere irakasten jarraitzen du.

Gizon bi herriaren alde lanean, gure kultura herrikoia, gure izaera, ohiturak... jasotzen atsedetik gabe, eta biak ezbehar batek bidea itxita. Zergaitik baina? Ezbeharren bat behar bazuten ere, zergaitik ez zaio bertsolariari hankako mina etorri eta dantzariari eztarikoa?

Horra gure esker ona zor diegun anaia bi. Omenaldi bat merezi duten anaia bi.

Biekin egon nintzan lehengoan, koinetuak dira izan ere, eta bieki negarrak irretzen zien. Izan ere ez-behar honek bihotz muinean zauritu ditu.

Bitartean hamaika txikitolari izango dira gure tabernetan barreka, ezbarri eta hankako minik gabe.

ARANTZA

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

Zure salmentak ugaldut ditezke



Salerosketarako diru laguntza

Zure salmentak era askotara ugaldut ditzakezu. Zure denda aundituaz eta eraberrituz; bertako salgaiak aukeran eta gaurkoak ipiniuz; denda berriak zabalduz; garaian garaikoari begiratuaz; bear den neurrian berrituz... Ots, zure denda gogozkoa eta atsegina izan dedin bearrezkoa duzun guztia eskuratuz.

Zure denda osatzea, indartzea, aunditzea, dela eta... kezkatu bazaude, zatorz guregana, bear duzun argitasunik eta laguntzarik jasoko duzu.

SALEROSKETARAKO DIRU LAGUNTZA onurakor eta komenigarri izango zaizu, benetan. Zure kezkek uxatzeko asmatu dugun zerbait bait da.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

saldis

UDABERRIA

Txori kantuz eta eguzki dirdaritzuz bete etorri zen. Baiña Apirilak egin du berea. Kuku-elurra bota digu. Kukuak jo eta biramonean dena zuri zuria azaldu zen. Eta gero beste bi egunez, elurra zanpa-zanpa aritu zuen. Zerbaitegatik dira esatera zahar oiek: "Martxoak zenbat izotz, Apirilak aintzat elur", "Apirilla biribilla, urdandegian txerria otzez illa". Egia esateko, elurketa au oso ongi etorri da alor-soiako gozatzeko. Ikusiko da ze frutu emanen dun.

PILLOTA LEKU BATEN PREMIA

Joan den aspaldixko ontan pilotarako gogo aundiarekin ikusten ditugu gure mutill gazteak. Naiz eskuz naiz paletaz poliki aritzen direnak badira. Orrela, elkarrekin peleian ikustean, asko pozutzen gera. Baño plaza on batean askoz ere geiago jostatuko lirakela uste dugu. Noiz izanen ote dugu plaza eder bat? Bere estalki eta guzti egindako pillota lekua?

BIDE BERRIA

Zorionetan arkitzen gera, aspal-diko ametsa laster egi biurtuko. Jakin dugunez Aldundiak substat egiteko deia egin du Gorostietatik errira bide berria egin deza- ten; zortzi milioitik gorako presu- puestoa izanen dute. Ea bada bide berri ori eginik laster ikusten du- gun.

A. D.

mendexa

Gaztetxoan artean euskera aldre- besa, batekoz besterako euskera en- tzuten da oraintxe. Erderazko itz asko, bestetik.

Egunetik egunera sartzen dirala erdal itzak, esan diteke. Negarga- rria da gertatzen ari dana.

Orregaitik, nere ustez, idazleak ez luke aalegindu bear erdera idaz- lanetan sartzen. Berez sartzen dira nai baiño geiago, zoritxarrez.

Oraingo abiaduan bagoaz, laister doña bakarrik izango da euske- raz: itzak, erderaz danak.

Emen bada esatera bat bermeo- tarren batek esan ebala: "Tiempua formidabilia trigua ma- duratzeko".

Bildur naiz onenbestera ez ote garian iritxiko.

Lantxo onen bidez dei egiten denstat erdi guztiari, eta baita in- guruko erriei ere, lanean asi bea- rra daukagula aal danik ariñen, gaztetxo onei euskera garbiago bat erakusten.

EZKONTZA

Apirillaren zazpian ezkondu zan Elorribarri baserriko Ana Tere Arri- lla, Gardatako Urrupioño Lakeri- kabaskoagaz.

Zorionak!

Txakartegitar Joxe

aiete

HEZI TOKI

Azken aldi honetan mendigoiz- leen diapositiba batzuk ikusi ahal izan ditugu, koloretan, ikusgarriak benetan. Gure txalo beroenak aie- tear mendizale purrukatu haue- tzat eta ea noiz antolatzen duzen berriz antzeko zerbitu. Urrengo as- tean Balentxiren hitzaldia "Eliza eta lana" izenburuari zegokiola. Oso interesgarria iruditu zitzaigun. Garbi azaldu zuen garuko gazte askoren benetako konpromisorik hartu nahi eza.

MENDIGOIZALEAK

Aste santutan, gazte talde ba- tek mendigoizale kursillo bat an- tolatu du eta bidebatez eskalada batzuk egin Zurizar haranean. Bes- te batzuk Zaldueñon josi dituzte beren kanpaina dendak, Aizkorri- ra eta Andara ibilaldi batzuk eginaz. Eta azkenik, bost matrimoniok osa-

tzen genuen talde batek, seme- alabak geurekin, Nafarroako Gai- n- tzen eman ditugu azken jai egun hauek, haurrak euskal giroan men- dizaletu daitezten. Nafarroako men- di ikusgarriak giputzez josita ikus- ten ditugu igande eta jai-egunetan eta horrek beste hura gogorarazten digu: "Mendizaleak aurrera... eus- kaldunak esnatzera".

FESTAK

Aurten eta aurtengo urtetik ha- sita beti, maiatzean izango dira Aieteko festak, maiatzeko 13an, Gurutze Dena ospatuaz. Hona he- men aurtengo festa egitarauaren mamia:

Maiatzak 10, osteguna: gaueko 8- etan hitzaldia Aieteko historiari buruz.

Maiatzak 12, larunbata: 5,30etan, haurrentzat pelikula bat. Pelota partiduak (kopak). 7etan, ping- pong-ean finala (kopa). 8-10, dantza 10,30-12,30 Schola Cantorum.

Maiatzak 13, igandea: goizeko 8- etan diana txistulariekin. 10,30: haurrentzat meza. 11,30: dantza konkuro bat. Arratsaldean: 4-8: pintura eta abesti konkuro bat (Aiete - Jakintza - Lazkaoko ikas- tolen aktuzioa). 10: verbena.

Maiatzak 17, osteguna: gaueko 8- etan, hitzaldia eta abesbatza gai erlijiosoei buruz.

Maiatzak 19, larunbata: arratsal- deko 4,30-8,30: haurren futbol txapelketa (Kopak): Morlans-Erron- do Ugalde. 10,30: EUSKAL JAIA: OSKARBI - PELLO ETA PAN- TXOA - ETXAMENDI - LA- RREALDE.

Maiatzak 20, igandea: goizean dia- na txistulariekin. 10: bola txapelketa (kopak). 11: herri-meza. 12,30: ardo-kupela eta Aurreku. Arratsaldeko 1: bertsolariak. Tri- kitixa. 14,30: Pantxikari omenez bazkaria. 17: erromeria. 18: Has- parneko dantza-taldea. 22,30: Gau festa.

TXERTUBI

1973ko apirilak 27.

azpeitia

TRIKITILARIEN OMENEZ

Apirilaren 8an Azpeitian ospatu zen jaialdi gogoangarri bat. Irakur- leak dakikeenez iazko urtean Usur- bilgo herrian Sakabi eta Egañazpi izan ziren omenduak. Usurbildarrek hasera eman zioten ekintzari jarraituaz aurten Azpeitian beste lau tri- kitilari eta panderojotzaile omendu dira. Aunxa, Arbe, Bitarte, Epelde, Egurrola, Iturbide anaiak. Jaialdiaren antolatzaile Loliola bailarako gaz- teak genituen. Diogun bidenabar, antolaketa egokia iruditu zitzaigula. Jaialdiaren dizi guztiak ederki ta- xutzen eta burutzen asmatu zuten. Zorionak zuei gazte bulartsuoi eta aurrera.

Goizean garaiz agertzen hasi zi- tzaizkigun trikitilariak beren «inper- nuko hauspoa» harturik lanari eki- teko gogotsu. Taldeka-taldeka ka- letan goitiki behera soinua joaz Eli- zatarian bildu ziren. Hamazazpi zen- batu ahal izan genuen; baina gerora gehiagorik agertu zelakoa gaude. Tapia trikitilarien gorazarrez Herri- meza eder bat ospatu zen. Egun sonetan Soreasuko eliza txikiegi- a genduen; handia bada ere, ezin le- ku eman hainbeste jenderi.

Mezaemile eta hizlari Mikel Atxaga idazlea genduen. Beronek agertu zigunez, etor zedin trikitila- rik berak eskatu omen zioten. Izan ere Mikelek Usurbilen egin zien arreraz ez dirateke ahanzi. Aurten ere Azpeitira sasipetik ibiltzeko as- moz ez zitzaigun etorri. Trikitilarien ekintza, eskema zorrotz baten bidez, Herri-gataskari itsatsi zion. Hala- ber «Garizuma» metafora Euskal- Herriaren patu hitsari. Aspaldion ez genduen Atxagaren sermoirik en- tzun; bagenduen hartaz asetzeko nahirik, eta bai ase ere!

Egurdian Izarraitz pelotalekua lepahezurreraino beterik lau bikotei omen-saria eman zitzaion. Patxi Itur- bidek ez zuen omenaldira agertzetik izan. Honen seme Imanolek bete zuen hark utzitako zuloa.

Jaialdia erromeri bulartsu eta alaiz amaitu zen.

ASTOTEGIKO ZUHAITZAK MUTILZAROKO OROITZAPENAK

Astotegik azpeitiar gutioi, kale- tar nahiz baserriarroi, halakoxe bi- hozkada samurra damaigu. Astote-

gi Azpeitian dago. Urola errekar- en saihetsean eta toki izen bat da. Ize- nak ongi adierazten duen bezala, azokara edo tratara datozen base- rriarrek astoak uzten dituzten le- kua hain zuzen.

Garai batetan, goiz partetik, azo- ka ordutan astoz beterik egondu ohi zen; gaur astoen orde berebi- lak egoten dira. Hots motorrezko asto berriak.

Mutilzaroko sasoi haitan, orain- dik ere ikusi bide dugu asto gaixo haien egoera luze aspergarria. Oro- tzen gara haien arrantza eta marru tristeaz. Noiz baino noiz beren na- gusi baserriarrek, eguneroko ogia eman zezaten, tratua saldu zai etxera abiatzeko. Binbitartean gu kaleume bihurriki, asto gaixoak le- henaz gainera ernegarazten: «hau arra duk beste hau emea» igo ba- ten gainera eta salto bestera, eta azkenik ertzaina ikusi eta ihesari ematen genion. Astoak lotzeko-bur- din luzea, gaur ere ikus ahal dai- teke; baita homatan sarturik diren argoila zaratats ukere. Eskolaumeen jolasgailu bitxiak eskuarki.

Argoila hauk eseki leku apartak izanik, beren iguruan eskolaumeak jolas berezi bat sortu zuten. Haiek garai liluragarriak! Gure herrian er- dal-jolasik ez zen ezagutzen deus ere. Nahiz eta eskola guztitan er- dal-irakaskintza nagusi. Eta ez pen- sa irakurle antzina urrun baten ai- pomenak eginaz ari natzaizunik ez horixe; Agirrearen lehendakaria Bilbaon ez baino Parisen ezagutu genduen belaundiaren gertaerak dituzte guztiak.

Astotegi zuhaitzez estalirik eza- gutu izan dugu, guk behintzak beti- danik. Ezker-eskui indi gaitzaina adartsuak lerro lerro hamarnaka to- lestaturik, uda eta negu, guztien babesleku. Zuhaitze haitan zenbat azpeitiar jolastu ote da! Jose Arte- txek ere Arkupeak eta eskola in- guruko behinik aipaturik utzi zi- tuen. Bera ere eskierki Astotegin hamaika jolas egindako izango zen. Indi gaitzaina gaixoak! Zahararen zaharkiturik zirelako edo... Orpotik ebaki, zuztarrak eta zainak kendu ondotik sutara. Orain berriak kimu zai gaude.

Zaharrei gure oroitzapena, berrioi ongietorri itzaropentsua: lehengoek haina urte eta zerbitzu egin deza- zuten opa dizuegu!

Astotegiko indigaztainak, zuhaitz hostatsua bikainak. Herri zerbitzari leialak, Urolaren miresle isilak. Urteen kate gogor lodiak ahuldu ditu zuen bizitzak. Zuen azken oroitzapenak gorde bitza gure lumak.

ERRAMU EGUNA

Eramu igandez eguraldi ederra genduen. Mezanagusi aurretik urte- ro bezala eramu bedeinkazioa gen- duen. Ondotik prozezio bikain bat egin zen. Gure kale murriztak umetxo- en kantu ezituz alaitu ziren. Aurtengoan ere jende asko ager- tu zen eramu bedeinkaziora.

Umetxoak atetik ate erremu be- nedikatua banatzen ikusten geni- tuen. Nolako pulamentu eta ilusio! Eramu egunez behin da berriro gu- re umetxoak eredu genituen.

Iraurgi zaharreko lurralde haue- tan badira oraino ohitura jator eranginkorrek. Ze arrairo gero.

ALFABETATZE SAIOA

Lerro hauk argitara orduko Azpe- itian eta Azkoitian Alfabetatzeari ha- sera emanik egongo da. Honoko Al- fabetatze hau Euskaltzaindiaren ar- durapean eta beronen arauel ja- rraituaz moldatuko da. Irakasleak berriz, Euskaltzaindiak euskara irak- as ahal izateko banatu zituen kar- neten jabe ditugu. Ondorengoeta gai honi zehatzago lotuko gaitzaiz- kio.

IÑAKI OLARTE BIZKORTZEN

Azpeitian eta Gipuzkoan guztiz ezaguna da Iñaki Olarte. Gure he- rriko ikastolaren sortzaile, Zeruko Argiaren langile gartsu, irakasle jakintsu eta Gipuzkoako Ikastola-el- karteko lehendakari dugu Iñaki. Ba- du zertaz kezkatu gure ekintzaile apal jator honek.

Lan eta neke guztien gainetik, Iña- ki mutil patxaratsu eta humorekoa du, gauzak arretaz eta oroapenez egiten dakiena. Sekula ez gara as- pertu izan bere ondoan. Beti badu zerbaiz jakingarririk.

Azkenaldiotan, lanen astunaz gai- nera, gaixoardi batez jipoiurik egin- du da; baina badator bai bere sasoi-

ra. Makila eta nagiak alde batetara utzia, egunero jinasi saio luzeak egiten ditu. Hori duk Iñaki hori! Badakik Apirileko loreak balio due- la urrea. Bejondaiala motel, eutsi goiar!

Anatsan

arrasate

IKASTOLA

Borroka asko izan ondoren, gure herrian, ikastolak jarraitzen du. Ikastolak hiru zati ditu. a) gurasoak eta junta, b) ikasleak, d) irakas- leak. Eta borrokaren ondoren zati bat terdi aldatu dira. Horregaitik Arrasateko ikastola berriaren berri ematen saiatzen gera.

Datorren larunbatean, hilak 17, Otamendi dantza-lekuan jaialdi bat ospatuko da, «Koxka» eta «Haika» alaizaleak diralarik.

Herritar asko bilduko gara la- runbatean ikastolari laguntzarren; dana dala konbeni zaigu oraindik kontuan edukitzea andereño batzu lanik gabe daudela, eta berri batzuk (heuren «Euskaltzaletasun» guztia- kin) alkarrekin erderaz mintzo di- rala.

Beraz, nabari da oraindik guz- tiak ez dirala konformatu ikasto- laren joerakin.

LANTEGIETATIK

Oraingoan ere lantegietako ber- rriak izan ditugu. IFAM (Industrias Feliziano Aranzabal Mondragon) deritzanetik bortitzenak.

Hiru hilabete direla langileak huelgan hasi ziran, reibindikazio batzuren eske.

Azkenean, ugazabarekin eztabai- da batzuk izan ondoren, beronek lantegiko ateak itxi ditu.

Beraz, hirureun langile kalean aurkitzen dira. Noiz arte ote?

—oOo—

Zenbait kooperatibak ere, beren Batzar orokorak egin zituzten.

Dakigunez batean «Dei Arrasate- ri» Gurutz Ansolaren artikulua ere aipatu zan.

Beste batean Batzar agintaritzar- oko jende berria autatu zan.

Dakikegunez edo behintzat uste dugunez, Batzar orokorra da koope- ratibetako agintari nagusia. Eta itxura denez, langile gehienek fa- miliak nekez jateko alokairua ira- bazten dute. Batzar orokorrean kon- formidadea erakutsi digute zenbait puntutan.

—oOo—

Danak aipatzeko Union Cerraje- rak eta Roneok, S.A.k bete dituzte beren araudiak.

Iaz indar gehien Bergarako lan- tegian ipini omen dute, aurten ber- riaz Arrasaten ahaleginduko dira batik bat.

—oOo—

Arrasatetar langileok puntuok ze- hatz mehatz analizatu behar geni- tuzke.

FENOMENO DERITZAIGU

Gure herrian, aurten ere, anto- latu dituzte euskarazko ikastaroak. Batzuk eta besteak bildu gara da- na ondo amaitzeko. «DANOK» koek ekanean Euskaltzaindiak egingo duen bilera dala eta, Euskal Ira- kasle titulua jasotzeko klase ba- tzuk montatu dituzte, Eibartar ira- kasle talde bat ekarriaz.

Zorion denoi eta ondo joan da- kizuela.

MASKELU TADEAK

mutriku

«GOIZEKO IZARRA» TALDEA

Ona emen GOIZEKO IZARRA, an- tzerki talde bikaina. Gerturik beti euskal kultura, izkuntza eta gure oiturak zabaldu eta indartzeko. Goi- zeko Izarra antzerki taldea, orain lau urte sortu zan; geroztik or da- bila egiñalako saiotan, erririk erri euskal antzerkiak agertuz.

Iru antzerki dira gerturik: RA- MUNTZO, TXAPELA BETE EURI eta APAIZ LAGILLE ta GIZON.

Apirillak 23, astelenez, LENENGO IZKUNTZIDUN ANTZERKI SARIKE- TA dela, ta Tolosako IPARRAGIRRE ANTZOKIAN bi jardunaldi emanak dira, arratsaldeaz eta gauzez. Iñaki Begiristain jaunak, ain zeatz eta

tajuz egindako «APAIZ LANGILLE ta GIZON» argitaldurik. Antzerki oni buruz jaso ditudan albisteak poz- garriak dira. Beren lana guztiz txal- lotua eta goratua izan zan.

Zuzendari eta antzezleri guziak ar- bitzate nere zorionik beroenak.

EZKON DEIETAN

Ezkon deietan arkitzen dira, Ni- kasio Arruabarrena, Itziar Basurko- rekin; Jose Iñasio Txurruka Uso- biaga, Lourdes Motriko Beristaine- kin; Luis Maria Burgaña Arruaba- rrena, Izaskun Motriko Beristaine- kin; Juan Maria Arrizabalaga Ba- lenziaga, Mari Carmen Ibarzabal Garagarzarekin; Martin Arrizabala- ga Iriondo, M.^a Rosario Lekube Goenagarekin eta, Jose Maria Agi- rrezabala Arrizabalaga, Ana Maria Zabaletarekin. Zorionak denoi.

KRISTAU BERRIAK

Apirillak 21, Larunbat santuz, gaueko Meza Nagusian bataioaren bitartez kristau berri egin ziran aurtxo- en izenak. ARITZ Arrizabalaga Urreizti, ZIGOR Mendizabal Agirre- zabala, AITZPEA Barrenetxea Man- terola, IGOR Basterretxea Basterre- txea, ASIER Madera Beitia, UNAI Madera Beitia, M.^a MERCEDES Le- kube Arrizabalaga eta DANIEL Iba- rrola Urreizti. Zorionik beroenak, aurtxoan guraso eta senide guzoi.

ARRANTZALEAK

Bokarta garai ontan, or dabilta gure arrantzaleak eguneroko joan etorrietan. Badira itsasontzi batzuek noizean beingo azken-sari edo to- pea arrantzat dituztenak, beste batzuk erdizka dabilzaten eta bes- te asko eskamaren azterrenik ikusi ez dutenak. Irabaziak ere batzuk ondo, zesteak gutxiago eta besteak baterez. Penagarria benetan, baina au betiko leloa degu arrantza- le errietan.

ANDONEGI

ATXUKALETIK

Goiz argi eta ederra benetan, eta... Atxukalean. Eguzkia dizdira- tsu azaltzen zaigu Alkolea aldetik eta... udaberriko egun zoragarri bat Mutriku.

Mutriku, bere langille, nekazari eta arrantzaleak; eta mariñelak ai- patu ditudanez lehen esan bezela udaberria eta beraz antxo- a sasoiak

Antxoeta, goiz ederra eta... Atxu- kalean. Gure aspian gure portua eta han urrutian, etxeruntz dato- zen ontziak.

Hasi zaigu bai urteroko antxo- eta. Nahiz eta nekez hasi, hasi zaigu. Hemen dugu geure artean. Hemen dakarte hain durrigorretzko- zaigun frutua. Bide luzeak urrutian ibiliak dira; baina hasi da eta bai- ta dotore harrapatzen hasiera. Ba- datoz, bai, mariñelak, Atxukaletik ikusi dugu, eta zenbait etxetan poz- tu dira.

Eta hauek denak horrela direla urreratu da egunero bezela goiz hontan ere, arrantza zaharra, erre- tiratutako mariñel zaharra. Eta ikus- ten du bai ikusi aurten ere hasi dela gure portuan urteroko garai hontako mugimendua: ontzien joan- etorriak, burdi eta berebil edo ka- mioien batera eta bestera ibilli be- harrak, eta benetan bai poztu dela gure arrantza zaharra. Eta galde- ka hasi da: Horrek zenbat ekarri du, eta hark?

Bai, benetan atsegin zaio gure mariñel zaharri ikuskizun eder hau goiz zoragarri hontan, eta han doa eskailetan, behera lojape zaha- rrean. Hitzegin du bai gure mariñel zaharrik orain arte gerarekin ibi- lliko arrantza lagunekin eta bai- ta haalko xamurtasun giro bat su- matu ere bere bihotz barranean. Eta eskeñi diote eta baita eman ere arrai gure mariñel zaharri, eta berak irriparrez: Horrenbeste zertarako behar dut? Aski da.

Ez, ez da aski. Ondo merezi eta irabazia du hori gure mariñel za- harrak eta baita zahartzaro hobe bat ere. Bai noski.

Eta han doakigu gure Patxi za- harra. TRAMPA-KALEAN gora poli- ki-poliki, makulu baten laguntzaz, bere zorrotxoan antxoekin, han da- ramazkio bere emazteari, lehenago egiten zuen bezela, antxo bizi- bi- zia. Han doa bai gure Patxi, arran- tzale jatorra, aldapan gora, goiz eder hontan bere sukaldara.

ULAZIA

pasai donibane

BELTZAK eta PORTUGAL-DARRAK

Lehenago astean, zazpi gizon beltz aurkitu zituzten Bidasoa mendiko mugetan galduak. Hoietatik hiru, goseak eta hotzeak hilik. Senegaldarrak eta Guineatarrak omen dira.

Handik egun batzuetara, portugaldar gizon-emakume talde txiki bat, itozeko arrixkuan ibiliak izan dira, Bidasoa kuga ibaia ertze batetik bestera igeri igaro nahi zutelarik.

Beharrik eranginda etortzen dira gizon hauek, Frantziako barna, lana bilatu nahirik. Beren nazioetan, ez bai dute ez lanik eta ia-ia ezta bizitzeko eskubiderik ere.

Guziez baztertuak eta zokoratuak diren langile hauek, Irunen agertzen diren bezin pronto, muga (muga honek makina bat kalte dakarkigu horregatik!) igartzeko asmoz, gizon esplotatzaile eta giza trafikatzailerik talde batek, diru-mordo handiaren truke, aberri askatu eta berdingabera pasatzen «laguntzen» die. Eta beltz «dezibilizatu» hoiak, hor hil dira, «zibilizazioaren» erdierdian erurririk gabe. Benito Lertxundiren hitzak datozkigu burura: «Ez kanta beltza, alferrik da ta indarren kontra jaso indarra zuen bizitza oso motza da egin zazute libre».

IBILIALDI NEURTUA

Gure herriko ITSAS-MENDI elkar-teak, 7garren Ibilialdi Neurtua (Marcha Regulada) antolatuta digu datorren igandera (Maiatzak 13). Pasai Antxoko, S. Markos bidetik, goizeko 7etan, abiatuko dira parte hartuko duten mendizaleak. Marraski hontan duzue nondik-nora doan ibilialdi hau.

Izen-ematearen epea, Maiatzaren 13an goizeko 8etan itxiko zaizu. Bitartean, zure izen-deiturak, Itsas-Mendi Elkartean eman ditzakezu. Gogoan izan, talde txikiak behar dutela, ar edo eme dan jaramonik egin gabe.

NAFARROAN EUSKARA

Pozaren-pezaz irakurri izan dugu, Nafarroan ere ikastolaren sortzen eta ugalduz doazela. Gaurregun 17 ikastola zabalduak omen daude beste horrenbeste herritan. Nahiz-eta, nafarrei, euskaldun izena kentzen zenbait saiak (gogoan izan «vasconavarros» deitzen diela batzuek, euskaldunak ez balira bezela), buru-belarri lanean ari zaizkigu euskara zabaltean eta sendotzen Nafarroako Diputazioaren babesean eta laguntza pean. Arazo edo problema latzenetako bat, irakasle (profesore) ezarena dute.

Ikaspide ederra Nafarroako Diputazioarena! Aurrera nafarrrak!

IRAKURRI DUGUNA

Arantzazuko egutegian, Apirila 21eko orritxoan, esaera hau irakurri dugu: «Besteei erakutsia egin bagenu, honez gero baginan santu». Egia borobila.

HERIOTZA

Orain direla egun batzuk, Pasai Antxon, Luisa Goienetxea Alzua sanjuandar emakume jatorra, hil zitzaigun. Bi edo hiru hilabete direla ere, 18 urteko seme bat hil zitzaion ezbeharrez edo akzidentez. Hitzak alferrik dira, familia honek eramaten ari dena adierazteko.

Har bezate bere senar, seme-alabek, senideek (batez ere Teles eta Epik gure saminik gartsuena. IÑALURRETA

errenteria

DARSO BOLETINA

Udaletxeak argitaratzen duen DARSO boletiniaren hogeigarren lea jaso dugu. Erroak dituela zantzarik ez dago, hala ere ez da jarritzekoa, denok izaten bai ditugu. Baina gehiago gerta ez de-

din eta eratzailleek jaso dezaten eta bear den bezalako erantzuna eman dizaioten, letra punta bi hauen bidez agertu nahi dugu garrantziko erro bat.

Euskaldunok ez dugu ulertzen nola argitara daiteken Errenteria batean, boletina osoa erderaz. Ez ahal zarete konturatu honetaz ala konturatu bai bainan... Ez ahal dugu eskubiderik Udaletxearen berriak edo ekintzak gure hizkuntzaz jasotzeko? Agintarien artean bazaudete euskaldunak. Zergaitik bazterzen gaituzue? Zergaitik ez zarete saiatzen urrango alean bi hizkuntzatan atera dadin? Errenterian bada euskaldunik lan hau aurrera eramango lukeenik. Estimatu genuke eratzailleek jaso eta urrango boletiniaren erantzun bat emango balute.

GUARDERIA INFANTIL

«Beraunen» «Guardería Infantil» deitzen zaion aretoa ireki dute. Gela hauetan, hirurogei umerentzako omen dago tokia. Denbora gutti barru, Alabergan ehun umerentzako tokia izango duen beste areto bat irekiko omen dute. Lan ederra hauxe. Gaur egun beharrezkoa. Soldadak larriak diranez askotan emakumeek etxea eta umeak utzi eta etxetik kanpo atera bear izaten bai du, sendia aurrera atera dadin. Baina lan ederra izanik, norentzako antolatutako gelak dira hauek? euskaldunentzako ala erdaldunentzako? Umetxo euskaldunak pertsona bezala hezitzeko biderik ba ahal dute? Norbaitek esango du, euskalduna sar dedila erdal moldeetan, euskaldunak ohitu daitezela erdal-dune giroan. Baina guk diogu Euskal Herrian bizi garenez, zergaitik ez erdaldunak euskal moldeetara? Berriro diogu, leku hauen arduraren dutenek gogoan har zazue arren, arazo hau eta lehen baileen erantzun bat eman ezazozue. Bide batez, dei bat egiten diegu herriko eta ballarako senar emazte euskaldunei. Ez ditzagun ahoz gure seme-alabak euskaldun bezala hazi eta hezi behar dutela eta saia gaitezen pertsona bezala hezi daitezten eta euskal giroko aretoak izan ditzaten.

HERIOTZA

Apirillaren 21ean Larrañaga eta Alberditar Franzisko larogeita sei urtetan hil zan. Bere sendi guziri, agertu nahi diogu gure samintasuna (G.B.).

UMEEN IV ASTEA

Maiatzaren 7an hasiera emango zaio eta 13an bukaera. Guztietarik izango da. Zine jaialdia 7an; Ikastola taldeen antzerki laburrak 9an; TRIBIRIS, TRIBIRIS, BARDI Giñolaren saioa eta janzkera sariketarak 11an; Ibilialdi berezia 13an. Bikaina benetan Ereintza-Ibaika gau ikastolako arduradunek gertutu duten haurren hastea. Zorionak.

MAHASTI

ECHABE

ETXABEAREN Mueble - Etxea

Fuero'en Enperantzza

Urrutizkifiek: 84 10 78
84 11 24

ZARAUZ

bazkari onaren zainpargarria eta txarraren estalgarria

LA CASA DEL CAFE

Juan Iriondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413601 Donostia

ON KOSME, ZERRI SALBATZAILLE

Negua zan. Gau luzea. Goizeko amarretan, eguna illuna, eguraldi euritsua, astuna, tristea. Illunago zegoan On Kosmeren biotza goiz artan: gaixorik oean; gorputzez gaixorik, baiña gaixoago bere espiirtua. Euri tan-tanak gelaren leioan, beltzago biurtzen zuten bere barne atsekabetua.

«Ai Kosme, Kosme, gogoratzen aiz? Maiatza uken. I. ango Euskal Errian, Meza berria ematen; emen anaiak elkar iltzen. Ire ametsak egia biurtu ituen. Apaiz intzan. Ogeita amasei urte dituk ori gerta zitzaiala. Ogeita lau urte. Ez dauzkak arrapatirik.

Orain zer? Joandako ire bizitzaz pozik aal ago? Laster aiz beste munduan. Zer egin duk bitartean? Zer zeramatek ire eskuek? Gaitz aundirik ez duk egin, baiña on izugarririk ere ez orratio. Au larriaren larria, esku utsik joan bea ote duk Jaunaen aurrera, Kosme?

—oOo—

Sukar-kalenterak eta pentsamentu goibel auek loa dakarkite On Kosmeri. Laster zan ametsetan. Sukaldetik entzuteko eran ari da: BOST PRAILLE. ZERRIA... NIK SALBATU...

—Burutik egin al zaio, On Kosmeri? Zer izketak dira oiek ordeak? ZERRIA... BOST PRAILLE... NIK SALBATU...? diotsa Kaxilda Zerbitzariak.

—Zaude lasai, Kaxilda. Orain ogeita amasei urte dela gertatua, ametsetan bururatu zait. Xelebreagorik. Errota-Berri zeitzan Konbentuan, bestaldeko Euskal Errian, bost praille bizi ziran. Bost euskaldun maite aien etxean, arkitu nuen nik, gure gerla mardikatu garaian, keriza eta babesa.

Egun batez, polita gertatu zitzaigun: Ilbeltza zan eta egun batez eten gabeko euri jaso izugarria ari zuen. Laster giñan Errota-Berriko bizi lagunok ibai eta euri urez inguratuta. Euria gero eta gogorrago; gerrietarainoko ua etxe inguruan. Konbentuen atzekaldean «Zerritegi» bat zegoen. Egunen batean prailleen ao eta urdailaren gozamen izan bear zuen zerrita bertantxe bizi zan; kurrunkurrunka bakardade aundienean errukarri ura. Urak gora zetozen eta zerritegia gerota gelago ari zan urez betetzen. Zerritaren kurrunka estu eta larriak gero eta gelago prailleen biotzak estutzen zituen. Anaia Isidro Sukaldariak seriooki dio: Zerri gizaajoa gero ere bere azkena tristea izango zan baiña orrela nai eta nai ez ito bearra ere ez da bada gauza atsegiña. Itotzen danean aprobetxatu al izango dugu noski. Bai alaxe uste diat. Orlako estuasunetan, al duenak al duana egiten du eta gure zerrita atea puskatuta. Igerika agertu zen prailleen begien aurrean. Orduan bai larri nere prailleak: Urak eramango du eta iflorentzat ez da izango, zion Anaia Fidelek. Anaia Zirilo koipe zaleak bere baitan pentsatuko zuen noski «Aurtengo Bijili egunak ugariagoak izango zaizkiguk». Bitartean zerrita igerika zebillen nora joan asmatu ezifiki.

Zer egin? Bat batera Ebanjelioko itz aiek bururatu zitzaizkidan: «Nere izenean emandako baso bat ur, saririk gabe ez da geldituko». Baso bat ur baiño gelago ez ote da ba zerrita bikain ori prailleen eskuetan uztea eta beren bijili egunak gutxitzea?

Aski izan nuen pentsamentu ura, bat baterako erabakia artzeko: «Ni izango nintzan zerritaren salbatzaille. Sotana ken, makilla eskuetan ar eta antziak Kosme uretara zerrita billa».

A Kaxilda, Kaxilda, gaur Kosmito naiz, Kosmito. Oillotuta ikusten dezun Kosme au ez da Kosme ura. Ura beste bat zan. Gizon bikain eta azkarra, igerilari onenetakoa, urari eta olatu aundiari beldurrik ez ziona.

Bost eskaillera estu ziran Errota-Etxeak. Eskaillera tora zerrita igo bear zan. Laster nintzan zerritaren prailleen aurrean. Murroriaekin sei zerate, diotet nik, eutsi al dezuten tokitik eta gora gure zerrita.

Toki onean. Zer egifnik ez zegoen praille aiekin. Irutan ies egin zien zerritak. Laugarren ekinialdiaren aurretik aserre bizian mintzatzen natzaie: Azkenengoz ekarriko dizuet zerrita; zuek eta zuen zerrigatik pulmoniz ez da garbituko On Kosme.

Bereala komprentitu nuen zer gertatzen zitzairen prailleei. Uretan sartzeko abitoa jaso egin bear zuen eta bistan utzi sasoi artan erabiltzen zituzten parragarriko galtza aiek; kantzontzillo luzeak ziran praille galtzak. Berriro mintzatu nitzaien: «Bietakoren bat galdu bearrean zerate edo LOTSA edo ZERRIA». Lotsa galtzen badezu, gora zuen abitoak, jarri bistan zuen kantzontzillo eder oiek, uretara denok eta zerrita ekartzen dizuedanean, eutsi al duenak al duan tokitik eta barrura zuen zerrita. Lotsa galdu nai ez badezue utzi galtzen zerrita, ito dedilla, eraman dezala urak itsasora eta requiescat in pace.

Elkarrekin mintzatu gabe, lotsa galtzea erabaki zuten nere praille bedekatuok. Ana Nagusia leen-bizi, poliki poliki bere abitoa gorantz jasota gerrikoz lotu zuen. Bere exemplo bikainari jarraitu zioten beste prailleak. Ura zan Teatro polita: Bost praille kantzontzilloak bistan zituztela zerritari eltzeo zai. Fotografia bat atera al izan banu. Baiña banuen aurreko lanik nere zerritaren. Uretan daude eskaillera leen maillak. Listo, diotset, zerrita urreratu nienean; inguratzen dute zerrita, Ana Fidelek eltzen dio buztanetik, Anaia Mateok anketatik, besteak al zuanak al zuen tokitik, Ana Nagusia ez du errespetatu gure zerritak, ankas gora bota du putzura, arrastaka dioa Ana Klemente. Ura zan praille eta zerrita festa. Azkenik zerritak berriro igeri egiteko gogorik ezta, bera abiatzen da biziki eskaillerean gora eta zozt, Ana Probintzialaren gelan sartzen da.

Pozik ziran Prailleak, pozik Ana Nagusia. Milla esker, On Kosme, esan zidan onek. Merezki dezu sari aundi bat. Zer nai zenuke? Bere urdai azpiko bat emango bazenit lagun artean jateko? Bai orixe, zurzat izango da urdai azpiko ederrena.

Ana Nagusia baiño mila aldiz argiago zan Anaia Mateo eta gure zerrita maitearen urdai azpikoak lukainka eta txistorretan biurtu zituan. Agur, On Kosmeren urdai azpikoa.

—oOo—

Goizeko illunaldia uxatu zaio On Kosmeri. Badaki gauza aundirik bere bizitzan ez duela egin. Uskeriak. Balio utsezkoak. Kristoren izenean egindako ezerekeria oiek, Kristoren erruki aundiarekin batuta, pakea dakarkite On Kosmeren biotzari. Irriparra leurtu zaio ezpaitetan eta lordea dariola patxada gozoan gelditzen da.

Arostegitar Jok

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA

Dei honi jarraituz bazatuz zure erlojua KANARIAS bertan baiño merkeago erosiko duzu

Matxin Arzu, 1 **ONDARRABI**

“badator udaberria”

TRESILLOAK...oso merke

“1973rako berri berriak”

MOD. ITALIANO	15.375 pezeta edo hilean 630
MOD. SORRENTO	22.750 pezeta edo hilean 750
MOD. SORAYA	29.550 pezeta edo hilean 950

EZ DAUZKA BESTE INORK

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA


MORAZA, 3 eta 14 an **SAN MARZIAL, 12 an**

DONOSTIA IRUN

ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE GIPUZKOAN ETA NAFARROAN

askoz ere merkeago eskura ordainduz

ELIZAREN BERRI



Gazteria zerbaiten bila zebilek

Irakurleak jadanik dakikeenez, Taizé, protestante erlijioso komentua da. Munduan diren protestante komentu bakanetarik bat. Aspaldi on, bere jende-erakarmen indarra dela bide, ospe handia lortu duena.

Gazteria barra-barra biltzen da haruntz; batez ere, Aste Sainduz. Datorren urtetarako, Gazteen Kontzilioa delakoa antolatzen ari dira.

Gure artean ere, hasia da jendea haruntz joaten. Hain zuzen, aspaldiko laguna dudana bat izana da aurtengo Aste Sainduz. Nere lagun horrek Taizé-n jaso duen esperientziari interesgarri iritzi diot AMUNSA-ren irakurleentzat.

Hona bada.

—Haizak, hi, aurtengo Aste Sainduz Taizé-n izan haizela entzun diat. Egia ahal duk?

—Ba, bai. Aspalditik nengoan toki hura ezagutze-ko gogoz. Urteoro bezala, Aste Saindua non edo non pasatzeko asmoz, egun egokiak iruditu zitzaizkidan hantxe igarotzeko. Lagun baten bidez jakin nian, bazela Donostiako talde bat autobusean haruntz joateko zena. Haiekin hitz egin ahal izan nian, eta tokirik ez nuela jakitean, bakarrik joatea erabaki nian. Horrela, Ostegun Sainduz, goizean goiz bidean jarri, eta iluntzean han ninduan.

—Non zegok hori, eta zer duk?

—Lyon-dik gora, 200en bat kilometro; Suiza, beste hainbeste kilometrotara, eskuinean gelditzen delarik. Zelai berde eta mahasti goxoen erdian, mendi kokor bat. Gainean bi herri txiki. Horietako bat duk Taizé. Iristean, begien aurrean lehenik agertzen dena, ez duk herria; gehiago zirudik kanpamendu bat. Dena den, erdian eliza berria; aldamenean, fraide etxea, eta mendi gaina eta beste zoko guztiak jendez besterik. Nahiz eta ilunarekin heldu gain hartara, berehala nabaritu nian nazio askotako jendea zela han: nola frantsesa hala ingelesa, alemana eta amerikarra, italiar eta espainola edo portugesa. Bahuen japoniar eta indiar gazterik ere. Han eta hemen bide bazterrean eraikitako letreroak esaten zian zertara hindoan: «PÁQUES-TAIZÉ...». Urteoro bezala, nonahitik biltzen duk jendea mendi txiki hartan, RENCONTRES (topaketa) egiteko asmoz, bertako fraide-elkartearkin jaia ospatzen dituelarik.

—Beno, eta zerk eraman hau haruntzaino? Erretiroa egiteko asmoak ala?

—Funtsean, erretiro gurak eraginda joan ninduan; baina, banekian ere, gutxi gora-behera, zerekin aurkituko nintzen. Horenbesteko jendetzaren artean, erretiro eskasa izango huke, noski. Halere, erdizka bederen, zerbaite egin ahal izan nian. Izan ere, haruntz doanek, bost aukera izan ohi dizkiz. Topaketa batean parte hartu nahi lukeenak, bere gogoa adieraztea aski dik; berehala esaten ziotek non aurkituko dituen bere taldekoak. Talde horietako bat, «Réflexion» izenekoa huen. Zelai handi bat. Han-hemenka, dendak, eta bazter batetan, Frantziako harmadak utziriko etxola zahar bat. Inguratu orduko, neska bat ondoratu zitzaidan; alemana bera, eta frantsesez mintzatuz, eta barrura eraman nindian. Hiru-lau mahai. Tximist argia. Hamarren bat lagun mahai inguruan jarririk, isiltasun osoan ikurtzen. Gehienek Test. Berria ziaten. Alemanez, ingelesez eta frantsesez. Beste bat ere bazegoan, ile beltz eta bizar luze; nongotarra izango, eta sorbaldan ikusi nioan garai batetako eskapulario handi haletakoa, «Nuestra Señora de los Dolores» izen-irudi eta guzti: Hego Ameriketarra izan behar zian. Denda inguruan, kanpotik, berriz, zenbait irakurtzen, nor bere aldetik; halakoa bere mantan bildua, besteak aurkian jarria. Bahuen han isiltasunik, beste muturrean ari zirenen abesti eta hizketa gureganaino etorri ezean.

—Nazioarteko topaketa aipatu duk. Zenbatsu bildu zarete, eta nondiko jendea?

—Nere taldean, aleman, ingeles, amerikatar, suizar bi, italiar bi eta ni gintuan. Jendea, bost Kontinentetarik huen. Gehiena europarra.

Ikusgarria, ordea, hango elkartasun harrigarria. Pentsatu ee nian, ez dela gaur egun nazioarteko halako desberdintasunik, jenerazio artekoa baizik. Ikustekoa huan benetan, jende guztia janari berdina jaten, guztiak elizkizun berean parte hartzen, milaka gazte dinamismo batek eragina, munduko desberdintasuna kentzeko bideak bilatzen... Guztiok hogeit mila bat, eskas, izango gintuan, nahiz eta zenbaitek hogeitamar mila bazela esan.

—Elkarri ulertzeko zer bide zenuten?

—Gehienetan, elkarri ulertzeko nahikoa lan izan ohi diagu. Han ez huen halakorik. Nazio bakoitzeko taldeak bere egontoki berezia bazian. Denok batera biltzen ginelarik, hizkuntza ofiziala frantsesa huen; baina, bat-baterako itzulpenak izaten hituen, hizkuntza nagusienetara. Elizan, itzulpen hori bertako fraideek egin ohi ziaten; kanpoan zerbaite adierazi nahi zenean, berriz, eskuko altabosez gazte treberen batzuk nori bere hizkuntzan zuzentzen zitzeizkiguan. Orobat, Fr. Roger, fraide zuzendaria, Bazko egunez guzti mintzo zitzaigularik, bat-bateko itzulpenean eman zitzaiguan haren hitzaldia.

—Erretiroa egiteko asmoz joan hantzela esan duk. Hori egin ezinda, hire asmoa ustel atera zaik, beraz, ala?

—Lehen esan diatenez, ezin esanen nitek hutsegin nuenik. Ahaleginak egin nizkian pertsonal giroz bizitzeko egun haiek. Bagenian nor geure isil giroa; bageizkian geure liburuak; baita, bi hizketaldi ere bertako fraideek zuzenduak. Hizketaldiak, egungo eguneko giroan oinarrituak, hain zuzen, hots, Bazko giroan; eta horretatik, beste burutapen sakonetara bideratu gintzaten, Jainkoaren heriotza delako puntu hori egoki ukituaz. Heriotza eta piztea, funtsean... Hotrik aparte, aski distrakzio bide bahuen noski, bai inguruan, bai eliza barnean ere. Baina, aitortu behar diat, mesede handia egin didala beste erlijio dimentsio horrek. Han bizi zen giroak, alegia. Halako sinismen bizia, halako dinamismoa nabaritzen nian, beste inon eta inoiz sentitu ez dudana bezalakoa. Ez huen txantxetako gauz milaka gazte talde hura elizan bakarka otoiitzean ikustea! Eta nola otoiitz egin gero! Ez GURE AITAKA, ez errosariok; baina eliza erdian eta bazterrean ikusten nizkian, makurtuta, buruaz lurra jotzen zutela, besoak zabalduak, Salmoak errezatzen, lurrean etzanik... Eta nahiz elizan egun osoan jendea sartu eta atera ibili, bazegoan isil giro ederrik. Harrizketa benetan, guk zorrotzat edo jende txolintzat edo hippitatz jotzen ditugun neska-motil haiek, eliza beteka, elizkizunetan parte hartzen eta halako ernetasunez... ikustea, eta Ostirala Sainduz, banan-banan isil isilik joan katoilko aldarera eta bertan zegoan Jaunaren gorputza hartzen, gero nor bere tokira baztertu, eta han ordu luzeak egiten... Bai, esan behar diat, kristautasunaren lehen garaira erama bezala sentitu nuela nere barrua. Beste gazte bat ere ikusi nian, ile zarpail horietakoa, sorbaldan kazadora antzeko bat, eta haren erdian «Jesus, Revolution» delako letrero eta irudiaz elizan otoiitz egiten. Elizkizunetan, jende haren erdian, nere burua gure katedraletako dotore jantziriko eta usain gozoko gure jendearen elizkizunetatik oso urrun sentitu nian; jende hotzez beteriko gure elizetatik oso aparte. Inoiz eta inon ez bezala ikusi eta sentitu nian eliza batearen otoiitzaren berotasuna, bizitasuna. Bai, zerbaite gehiago ikusi diat bizitzan.

—Eta horrenbeste jenderentzat jateko kontua nola?

—Egia. Ez huen txantxetako gauza hainbeste jenderentzat janaria prestatzea. Baina, badakik: preokupazio guztia jatea ez denean, jateko arazoa aisago moldatzen duk. Ongi organizatua zegoan. Hasieratik eman ohi ziaten txartel bat, 9 franko ordainduz, eta txartel horrekin eskubidea huan eguneko lau otorduetarako eta kanpamentuan lo egiteko. Ez uste, hango bazkari edo afariak urdaila leher eraziko zianik.

—Loa aiatu duk. Nolaz moldatzen zineten?

—Denda asko izanik ere, jende hanitz elizara joaten huen lotara. Bai, elizan lo egiten zian jendeak, neskak eta motilek batera. Pentsatu ere nian, gure arteko zenbait «epailari» zorrotz han izan balitz dehadar ederrik atera izanen zukeela. Baina, ez; jendeak ez zian han halako prolemarik ikusten, eta neska-motilak, nahasian, han zeduean lo, lasai egon ere. Hantxe egin nizkian neuk ere bi galetako loak, hanka-usain eta zurrunka artean.

—Heldu jenderik ba ahal huen; eta fraide eta monjarik?

—Zenbait heldu ere bazebilean; hanbesteren artean gutxi eman arren, esango nitek, multzo polita osatzen zutela. Fraide eta apaizik ere bahuen; baina, badakik, gaur egun ez direla aisa ezagutzen. Bi monja bakarrik ikusi nizkian. Bazko elizkizunetan.

—Langile ala ikasle jendea huen?

—Ez nitek esango zeinetatik zen gehiago.

ELIZA INSTITUZIO (I)

Dudari ez dago kristauen problemak gehienbat maila praktikoko batetakoak izaten direla gehienetan. Lehen momentu batean kristaua ez du hainbeste kezkatzen Eliza Jesusek berak sortua, ala geroztik jaioa den jakiteak, are gutxiago Eliza eta Jainkoaren erreinua bereizteak edo Eliza salbazio bide bezala nola ulertu behar den jakiteak. Kristauak Elizari buruz hitz egiten duenean instituzio bat, erakunde bat du begien aurrean. Eta Elizak erakunde denez, eraturik dagoenez, sortzen dizkio problemak.

Bestaldetik berriz, gauza garbia da baita ere, Eliza instituzioak zer ikusi haundia duela lehen aipatutako galderekin. Orain arteko lanetan galdera hoiakin jardun gara, zerbaite esan nahian. Lan hoietan esandakoak gogoan izanik, ekin dizaiogun gaurko hontan Eliza instituzioari.

Elizak instituzio denez sortzen dizkio kristauari problemarik gehienak. Eta ez hori bakarrik: askotan min ere ematen dio. Eliza instituzioa zera da: Aita Sainduagandik hasi eta Elizako hierarkia maila guztiak herririk txikieneko apaizaganaino. Eliza instituzioa: aginduak eta legeak, ritoak eta ohiturak, sakramentuak eta tradizioak, «aparatoa», eta pixu eta eragin haundiko aparatoa. Motz eta labor esanda Eliza instituzio bezala edozein kristauren-tzat zera da: besteak, Elizan aginte dutenak, hierarkia bere irakasteko, zuzentzeko (agintzeko) eta santututzeko balore eta botereekin.

Instituzio hori ikusita halabeharrezko galdera batzuek sortzen zaizkigu: Elizaren helburua helburu espiritual bat baldin bada, zertara dator horrelako aginte eta hierarkia aparato izugarri hori, zerk bidezkotu dezake instituzio haundi hori, inolaz bidezkotu baldin badaiteke? Eta Elizaren nolabaiteko instituzionalizazioa nahitaezinezkoa bada, gaur daukagun instituzio hau al da zuzena, eta gaur daukagun bezala? Zerk bidezkotzen du teologia mailan ez Eliza instituzio izatea, baizik eta instituzio konkretu hau izatea? Ezin al daiteke Eliza beste nolabaite eratu, zenbateraino dira Elizaren era eta eraketa asko berez baliozkoak, betikoak eta betirakoak? Galdera honek beste hau dakar berarekin: ez al da egia Elizaren zenbait eraketa ez direla ez errealizaziozkoak, ez Jainkotikazkoak, historian zehar munduaren, gizartearen eta bere beharren eraginez sortutakoak baizik?

Galdera guzti hauei artikulatu batetan erantzuterik ez dagoela garbi dago. Hala ere, saia gaitezen galdera hoiaren azpian dauden hiru gairi buruz zertxobait esaten; Hiru gaiak hauek dira:

1) Elizaren instituzionalizatu beharra, hau da, Elizaren eratu beharra.

2) Elizaren eratu beharra eta behar hontatik sortu den instituzio konkretu hau.

3) Kondaira eta instituzioa.

1) *Elizaren eratu beharra:* Joan den gizaldian ohizkoa zen Eliza ez zuela Jesusek sortu esatea, Paulok baizik. Paulo jotzen zuten garai hartako historiadoreek Elizaren benetako Aita bezala. Horregatik pentsatzen zuten batek baino gehiagok Jesusek jarraitzaile izateko ez zegoela Elizaren menpeko izan beharrik. Jokaera hau gaur ere nahikoa zabaldua dagoela uste dut: Jesus bai, Elizarik ez. Jokaera honen arrazoi politikoa berriz hau da: Eliza, instituzio denez, burokratikaegia, botereetsuegia bihurtu dela; gizonen zerbitzuan egon beharrean hauek bere menpeko morroi egin nahi dituela; aberatsegia, indartsuegia dela, maitasunez gurtzean hil zen Jesusen jarraitzaile izateko. Gauzak maila hontan ikusita, «Jesus bai, Elizarik ez» esaten dituenek ez zaie arrazoirik falta.

Hori esaterakoan zerbaite ahaztu dugu ordea: Elizak, gizarte bat denez, beste edozein gizartek bezala eraketa bat beharrezkoa duela. Kondairan zehar izan diren anarkismo guztiak —eta hoietatik zenbait Elizaren barnean bertan sortutakoak dira— beharrezkoak izan dira morrontza bilakatu diren eraketak salatzeko, bainan beti utopismoan gelditu dira. Bestalde berriz, gauza garbia da kristau sinismena individualismo bat ez dela, elkarre bitzita, elkartasunerako joera bere-berea duela. Elkarre hori berriz kondairan bizi izandako pertsona bati buruz mamitutako sinismenak eraginda sortzen da. Honetxek ematen digu lehen eraketa bat: kristau elkarre ez da burugabea, zentro gabea, funtsetik beretik buru-duna, zentroduna baizik. Honek ez du oraindik inolara ere esan nahi lehen eraketa hari geroztik sortu den eraketa hierarkiko guztiaren munia besterik ez danik, hau da: geroztikako eraketa hierarkiko guztia muin haren hedatze eta desarrollatze berezko eta nahitaezkoa denik.

Kristau sinismenak inolako ezaugarriarik baldin badu elkartean bizitzeko sinismena izatea da. Eta elkarrekin berekin du nolabaiteko ordena, nolabaiteko eraketa. Eliza osoki arbuizatea, beraz, ez da bidezkoa kristautasun jator batean. Kristau sinismenak berekin duen elkarre bizitzarako joerak gure egunotako Eliza guztiz hierarkikoa besterik gabe justifikatzen duen ala ez, besterik da, noski. Kondairan zehar beti sortu dira Elizaren instituzionalizatzeko hertsia baten kontrako joerak, eta ez kristau sinismenaren etsaiegandik, beren burua Jesusen jarraitzaile fin eta jatorizat jotzen zutenengandik baizik. Maila guztian da egia kondaira irabazleek idatzi izan dutela eta, gure kasoan ere horixe gertatzen da: Elizan instituzionalizazio joera nagusi gertatzen denez, gainontzeko joerak edo ez dira aipatu ere egiten, edo beren balio eta ezaugarri guztietatik garbiturik aipatzen dira.

Bainan galdera hor gelditzen da beti: ez nolabaiteko eraketa batek, gaur eguneko Elizaren eraketa konkretok baizik, ba al du inolako sentidurik? Ezerk bidezkotzen al du gaur egun edozein kristauk Eliza deitzen duen instituzio hori? Gorago aipatutako bigarren puntuari ekin behar diogu beraz. Bainan, honez gero, datorren astean jarraitu behako.

JOSEBA ARREGI

**JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BEBBIA DONOSTIAN**

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

(2' gn. orrian jarraitzen)

JUAN BAUTISTA GAMIZ,

ARABAKO IDAZLEA (1696 - 1773)

Euskaltzaindiak batzar berezi bat eskaini dio Sabandon

JUAN GOIKOETXEAREKIN, JAKIN-MINEZ

Juan Goikoetxea euskaltzaina, Zeraingo semea dugu. Euskara eta Euskal gaietara eskainirik du bere bizitzaren zati nagusi bat. Egan, Euskera, Z. Argia eta beste aldizkaritan irakur ahal izan ditugu bere lanak. Liburu mordoska baten egile eta itzultzaile. Beste batzuen artean aipa ditzagun «Errialde guztien historia», «Ernamifiak», «Siberiar neskatza», eta «Seksu-Ezididea». Azken hau Gaztañaga eta biak elkar-lanean moldatua. Oraintsu itzuli du euskarara beste liburu bat ere. Gure kondairaz mamitua berai.

Juan Goikoetxea Loiolako artxibutegia jorratzen ari zaigu. Euskal literatura eta kondairarentzat jadanik dato interesgarri asko aurkiturik du. Duena eta dakiena emateko beti prest. Goikoetxearengan gizon erne eta sakon horietako baten imajina aurkitzen dugu. Solaskidearentzat patxadatsu eta atsegina.

Loiola aldera hurbildu gara goiz ilunskan honetan. Oñaztarren dorretxea zurbil, bakar-ti, hits aurkitu dugu. Murru-ekoa usu dario, antzinateko orotzapenen mintzo negartia baltzan. Goikoetxearen gelan sartu gara, aita Aranak bildutako eskuiskribu batzuk mahai gainean, ia denak hemezortzigarren mende-koak. Paper hauen artean aparteko bertso sail bat ikusi dugu. Norik eginak ote? Goikoetxearen ustetan Azkoitian midikutzan ihardun zuen Sarako Joanes etcheberrik; inondikan ez Larramendik. Hala zion Goikoetxeak: «Larramendik berriz jai beharko liake honoko bertso hau egin ahal izateko». Gauzak ikasi ondotik elkarrizketari ekin diogu.

—Goikoetxea jauna, zer dela eta Juan Bautista Gamizi gorazarre hau?

—Gamiz Arabako idazlea hil zela berrehun urte bete dira Apirilaren 28an. Kardaberaz bezalaxe, Euskal Herriatik aparte, Boloniako lurralde urrunetan hil zen. Gorazarre honek Arabak eta Euskal Herri osoak eskaintzen dion heriotz-omen bat izan nahi du.

—Badu beste helburu bat ere: Arabari bere idazle baten berri ematea. Gamiz ilunpetan luzaz egondu den idazle bat dugu. 1923an Joakin Azpiazu euskaltzainak, Donezteben egin zen Batzar batetan, Gamizek egindako olerki baten berri eman zion. Berrogeita hamar urtez geroztik Gamiz osokiago ezagutzeko egokiera izan dugu. Honetan ez naiz bakarrik. Beste jakintsu gehiagok ere aztertu du. Guztion lanez, Gamiz ilunpetatik argitara eraman behar dugu.

—Arabako idazle honen bizitza pittin bat agertuko ahal diguzu?

—Gamiz Arabako Sabandon jaio zen. Sabando hau Gasteiztik hegoalderuntz Maeztu inguruan dago. 1696an sortu zen. Larramendi, Kardaberaz, Basterretxea, eta Meagher idazle ezagunen aldi-aldikoa ikusten du zunez. Hogeiren bat urte zuelarik Jesulagundian sartu zen. Herri-eskola hutsez sartu ere egin zen; ez zen ikasia baina buruz oso azkarra. Pentsa zeinen azkarra izango zen. Zuzendaritzak sukalde lanetatik atera eta Iruñeko ikastetxeko diru zain ordenatu zuen alajaina!

Iruñeko ikastetxean berrogei urte egin zituen, arik eta Carlos hirugarrenak Jesulagundia zapuztu eta atzerriaratu zuen arte. Ikastetxeko letragiako erangin da liburu eta irakurgai samurrez kutsatzen hasi zen nonbait. Diru zaindaritzaren astunaz burua arindu beharrez, tarteka-marteka olerki eta bertsoak egiten zituen. Haatik olerkari osoa ez bada ere bertsogile bada gutxiengik.

—Idazle bezala, zer idatzi zuen?

—Lanik luzeenak erdaraz eginik ditu. Halako batez, neskatxa bati egin zion bertsoak, erdaraz idazteari utzitzerainoko nahigabea eman zion. Orduetik denbora luzaz isildurik egon zen. Arik eta bere lagun bat honela mintzatu zitzaion arte: «erdaraz idatzi nahi ez badezu; zergatik ez idatzi euskaraz? Orduetik hasia dugu Gamiz euskaraz idazten. Bere euskarazko lanaren haserak hala dio.

—Erdaraz ezazu nahi ene viotza.

—Euzqueraz copla eguiten ez tut nic lotza».

Ez zuen askorik idatzi, edo bere lan guztiak ez ditugu bildu. Sakabanaturik dirateke. Zazpi olerki du. Bi luze, hirugarren bat halaholkoa luzeraz. Eta beste lauak laburrak. Hori da bere lan guztia. Maite kantak ia denak.

—Arabar idazle bat horrela arkitzeak balio handia izango du noski. Zer deritzazu?

—Nik hala uste, gure Literaturak garai hartako arabar idazle gutxi du, geroagorik ere. Arabak ja-

kiten duenean Gamiz bere seme idazlearen berri, gozoz poztu eta bere lehengo burua ezagutuko duela iduritzen zait. Honez gainera esan beharra dago Gamiz bertsogile polita genduela. Nahiz eta ez oso ugarria izan. Hizkuntza aldetik ere gauza interesgarri eskaintzen digu Gamizek, aditz eta fonetika aldetik batik bat. Hori da Mitxelena jaunaren ustea ere. Eta baliozko ustea dela esango nuke nik ere.

—Besteak beste, Mitxelenaren Literaturan agertzen da Gamizen izena. Baina Gamiz idazlea ez bide da ezagutzen. Zer dela eta gaurdaino isilik? Euskaldunon axolabekeriaz ote?

—Baditeke holakorik ere. Baina hori baino arazo astunagorik baugu. Carlos hirugarrenak Jesulagundian bizitza etenik utzi zuen. Gure artxibu eta idazle denak lurpean erdi hilik gelditu ziren. Are gehiago, Gamizen historiak badu beste zoritxar bat ere. Bere lanak eskura zirenean, arkitzaileak Gamizenak ez baino bilbililar edo Calatayuko Butron Muxikarenak zirela uste izan zuen. Butron Muxika hau ere jesuita zen. Gamizen garaiko edo pittin bat lehenagokoa. Aita Aranak, G. Henaoren «Averiguaciones sobre las antigüedades de Cantabria» liburuari egin zion erakinean ere, XVIII mendeko idazleen zerrendan B. Muxika agertzen zaigu. Joan zen Apirilaren 27an, Euskaltzaindiaren Batzarrean, horregatik esan nuen ez dela harako B. Muxikarik. Honen izena kendu eta Arabaren eta guztion pozez Gamizen izena sartu behar dugula Euskal idazleen zerrendan, alegia.

—Euskaltzaindiaren Batzarrean zer agertu duzu zuk Gamizi buruz?

—Batzar honetan, nik sail mugatua nuen. Gamiz bera, honen herria, bere garaiko Euskal giroa, nondik idazle egin zen, zer idatzi zuen eta. Beste arabar seme jakitun batek, Eknörrek hain zuzen, Gamizen idazkien aditz, fonetika eta hizkuntzari buruzko azterketa egin zion. Hau ere oso lan interesgarria izan zen.

—Goikoetxea jauna, begieman diet hemen mahai gainean dituzun eskuiskribu hauei. Gauza interesgarri asko ditu hemen eskuartearen. Zer lan burutzen ari zara une honetan?

—Egia esango dizut, orain arte, Euskal alorrean, ez dut nahi nukeen haina lan egiterik izan. Neure bizitzan etenaldi luzeak izan ditut. Zuk badakizu ni urte askotan Euskal giro eta arnasatik urrundu bizi izan naizela. Hemendik aurreruntz nahi nuke zerbañt taxuzkorik egin. Lehenik, diozun bezala hemen bildurik dituzan olerkiez liburu mardul bat argitara nahi nuke. Emertzogarren mendekoak dira gehienak, zaharragorik ere bai tartean. Olerki bezala denek balio haundirik ez dute; batzuk nahiko mottelak dira. Baina hizkuntza aldetik, diren garaikoak izanik, guztiz interesgarri zaizkigu.

Beste lan bat gaitzizen edo izengoñiaz egiten ari naiz. Seizazpi mila izen bildurik ditut. Orain arte bildutakoak hemengo herri ingurutakoak dira. Lanik zailena orain datorkit: beste herri aldetara irten beharra. Bilketa honetan batzuek oso ongi lagundu didate; beste zenbaitetik hitzeman ondotik ezer ez didate egin. Eginik usteko lan asko hutsik arkitu dit. Izengoñi hauk ez dago oraingoz argitaratzerik, min emango liekete zenbaiti.



Aita Juan Goikoetxea

Ari naiz beste gauza bat egiten ere: ardiak izenak biltzen ari naiz. Bitik hiru mila ardi izen bildurik ditut. Datorren udako Bilketa Urbiako artzaiekin egingo dut. La nharu batpatean egiterik ez dago. Artzaiek susmo txarrik izan ohi dute, arik eta zure helburuak garbiro ikusi eta konfiantza hartu arte. Susmo txar guztiak uxatu ondotik, beren giroari itsatsiaz lan egiten dut. Haatik aurtengo saioa ere aurrez prestatzen jardun dut.

Bilketaok guztiok geroko frutu izango dira, antzinako Euskal zuhaitz zaharrek emana, eta ene eritzi galzorian daudenak. Latin olerki zaharren meza ari naiz ni ere beraz: «geroko gizaldiari» on egingo dioten zuhaitzak landatzen.

—Azken galdera, Juan. Zer deritzazu gure Literaturaren egoerari?

—Literaturak berak daroma hizkuntzaren zoria. Gure ahal guztiak eginagatik ere nahiko larri dabila. Gure Literaturak bide eta joera berriak hartu ditu, batez ere gaiez. Hots, auzo giza-katramillatua agertzen zaigu. Gizarte egoeraren espresio hurbila da egungo literatura. Gai mota guztiak euskaraz eman nahi izatea beetan txalogarria da.


Orain, hizkuntza aldetik, Joanes artzaiekin batera esateko, iruditzen zait odolmehexagoa. Zenbait liburu idazkeraz nahiko baldres agertzen da; denak ez, ez eta gutxiagorik ere. Gure maisu haundiak hor dabilta beren liburuekin eta jakina horiek beti bezala maisuki idazten dute.

Ez dezaket amai zure galdera, hauxe eratsitzeke: gizagirosu pozoitu haserre hau erabaten, guztiok ahalagindu behar dugula. Geure buruzulatzaille izateari utzi eta euskaldungoa indartu behar dugu.

—oOo—

Honenbestez bukatu dugu Goikoetxearekin gaurko elkarrizketa. Beste ordu pila bat xahutzeko ez da solaskide kamutsa. Goikoetxea lanean eta Loiola dorreetxe hodei lodi tripakitsuek inguratutik isil eta bakarti utzi ditugu.

ANATSAN



Arrentiako San Andres eliza